

# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2727

*75/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.*

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2000) 14. artikuluan ezartzen du pertsona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea –barne dela derrigorrezko hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusiboa eta kalitatekoa doan jasotzeko aukera–, beren bizitza-proiektuan arrakasta lortzeko gaitasunak eskuratu eta mantentzeko eta gizartean bete-betean parte hartzeko.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ezartzen du haur eta nerabe guztiek dutela hezkuntza eta irakaskuntza jasotzeko eskubidea. Bestalde, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Legeak adierazten du funtsezkoa dela haurren eta nerabeen giza duintasuna eta integritate fisikoa eta psikologikoa errespetatzen direla ziurtatzea eta errespetatu daitezela sustatzea, indarkeria mota ororen prebentzioaren bidez. Familia eta eskola erabakigarriak dira, eskubide horiek bermatu behar dituzten heinean.

Hezkuntzari buruzko abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena) curriculumaren kontzeptuari buruzko aldaketak sartu ditu, eta horrek ekarri du Haur Hezkuntzako Antolaketa eta Gutxieneko Irakaskuntza ezartzen dituen otsailaren 1eko 95/2022 Errege Dekretua onartzea eta oinarrizko araudia aldatzea. Bestalde, eskumenak banatu dira berriz Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean, eta horrek funtsean aldatzen du Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko abenduaren 22ko 237/2015 Dekretuan ezarritakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatuaren 16. artikulua irakaskuntzaren gaineko eskumen propioa esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoari, irakaskuntzaren osotasunean, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate guztietan. Eskumen horretaz baliatuta, Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzako curriculuma onartu du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Euskararen Erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legea da euskal ikasle guztiak euskaraz eta gaztelaniaz behar adinako komunikazio-kompetentziarekin moldatzeko ahaldunduko dituen kompetentzia eleaniztunean aurrera egiteko erreferentzia. Era berean, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean (otsailaren 19ko 1/1993 Legea) helburu hau jasota dago: derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izatea bermatzea, baldintza-berdintasunean bermatu ere, euskararen erabilera bultzatuz eta, horrela, euskararen erabilera normalizatzen lagunduz, euskara hezkuntza-komunitatearen jardura guztietan ohiko adierazpide gisa erabil dadin.

Dekretu honek helburu honekin arautzen du Haur Hezkuntzako curriculuma: euskal hezkuntza-sisteman lortutako hezkuntza-mailak hobetzea eta XXI. mendeko erronka handiei erantzun dieten hezkuntza-xede berriak bultzatzea. Hori guztia, bat etorritik UNESCOren 2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (zehazki, 4. helburuarekin: «Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea»)

eta etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruz Europar Batasuneko Kontseiluak egindako gomendioarekin (2018).

Haur Hezkuntza etapa bat da berez, zeinean garapen pertsonal, emozional, intelektual eta sozial azkar eta konplexua gertatzen baita, eta hezkuntza-komunitate osoak erreparatu behar dio. Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea eta inplikazioa, eta bereziki maisu-maistren eta familien arteko koordinazioa, funtsezkoak dira etapa honetan.

Haurren heldutasunaren, emozioen, gizarteratzearen eta ikaskuntzen bilakaeraren jarraipena egitea ezinbestekoa da ikasleen oraingo eta etorkizuneko hezkuntza-arrakasta bermatzeko. Haur Hezkuntzak, gainera, Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzan sartzea erraztuko duten oinarriak ezartzen ditu.

Dekretu hau idazteko, kontuan izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan egin den hezkuntza-ibilbidea, inklusibitatearen aldeko apustua, elebitasuna, metodologia berritzaileak, hezkuntza-erantzukizun baterakoa eta kolaboratiboa eta euskal testuinguruan hezkuntza-erronkei egoki erantzuteko eskari soziala, hezkuntza-sistemaren kalitatea etengabe hobetu nahian eta hezkuntza-sistema propioa bikaintasunaren mailetan kokatuko duten emaitzak lortzeko.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparru berria aurrerapauso bat da Heziberri 2020ren aurreko ereduaren aldean: Heziberri 2020ren zeharkako eta diziplinako konpetentziek bat egiten dute, eta konpetentzia-eredu integratu bat sortzen, funtsezko konpetentzien eta konpetentzia espezifikoen bidez definitzen dena eta Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioak (2018) dioenarekin bat datorrena.

Gainera, dekretu hau ildo estrategiko hauen barruan errenditzen da, eta horiek izango dira dekretuan jasotako elementuak garatzeko oinarrizko erreferentziak:

- Ikaslea da euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria, eta goragoko etapen amaieran ikasle bakoitzak irteera-profila lortzea da helburua. Ziurtatu behar da ikasle guztiak XXI. mendeko erronkei pertsonalki, sozialki eta profesionalki arrakastaz aurre egiteko moduan daudela. Hori guztia, ongizate emozionaleko inguru inklusibo eta seguru batean.
- Eskola da hezkuntza-eraldaketarako ardatza: ikastetxe ahaldunduak eratu behar dira, pedagogiaren eta antolaketaren kudeaketan lidergoa banatzea sustatzen dutenak eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan oinarritutako berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzen dituztenak. Horretarako, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du.
- Irakasleek rol aktiboa hartu behar dute ikaskuntza-prozesuan, eta, hain zuzen, beren irakaskuntza-esparruan eta trebetasun didaktiko eta metodologikoetan duten aditu mailako ezagutza da haien lidergoaren oinarria. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo ikasleak guztiz garatzeko benetan balio duen beste edozein irakaskuntza edo ikaskuntza modalitatetan ere.
- Konpetentzia-curriculuma ikaskuntza sakon eta funtzional baterantz bideratzen da: ikasten dena era bateko eta besteko egoeretan baliatu daiteke, denboran zehar irauten du eta aukera ematen du egoera errealetan problemak konpontzeko.
- Hezkuntza linguistiko eta eleaniztunaren kalitatea funtsezkoa da: beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen ditu errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeke, ezagutza transmititzeko eta mundu-ikuskerara eta ulerkera jakin bat eta besteekin

harremanetan jartzeko era zehatz bat garatzeko. Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin –Euskal Herriko hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbitzita-tresnatzat hartzen dituen heinean, baita beste hizkuntzekin ere. Gainera, hizkuntza- eta eleaniztasun-konpetentzia garatzeak gainerako funtsezko konpetentziak garatzera bultzatzen du, eta, beraz, beste arloen zerbitzura dago konpetentzia hori.

– Curriculumerako sarbidearen unibertsaltasuna. Guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera izatea ekarriko du, eta benetako integrazioerako, aukera-berdintasunerako, erabateko parte-hartzerako eta eskola-arrakastarako bidea markatuko du. Ikaskuntzarako diseinu unibertsala hartuko da aintzat irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan.

– Hezkidetzaren funtsezkoa da pertsonen sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren arabera estereotipoetatik eta roletatik kanpo garatzen laguntzeko, eta bera izango da hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa eta ikastetxeen antolaketa pedagogikoarentzako irizpide orientatzailea, maila eta modalitate guztietan.

– Arreta berezia jarri behar zaie haurren ongizate emozionalari eta hezkuntza-komunitate osoa zaintzeari. Ondo eta harmonian sentitzearen esperientzia subjektiboa sartzen da hori, eta bakoitzak bere buruari buruz iritzi positiboa izatea, zailtasunei aurre egiteko eta haien ondo gainditzeko segurtasuna ematen duena. Ongizate emozionala beharrezkoa da inguruko eskaerei eta egoerei aurre egiteko edo horietara egokitzeke, eta eskaera eta egoera horien artean dago ikaskuntza ere. Curriculumak ongizate emozionalean lagundu behar du.

Hori guztia aintzat hartuta, Euskadiko Eskola Kontseiluarekin eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honen xedea da Haur Hezkuntzako etapako curriculumak ezartzea eta hura nola ezarri, ebaluatu eta garatu arautzea. Etapa horrek 0 urtetik 6 urtera bitarteko hezkuntza hartzen du, eta bi ziklotan dago egituratuta.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketak horiek ematen dituzten ikastetxe guztietan da aplikatzen.

2. artikulua.– Definizioak.

Honela ulertu behar dira:

a) Helburuak: funtsezko konpetentziak eskuratuz ikasleek etaparen amaierarako iritsi beharko lituzketen lorpenak.

b) Funtsezko konpetentziak: hurrek arrakastaz aurrera egin dezaten eta bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin diezaieten ezinbestekotzat jotzen diren jardunak. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapenerako behar dituztenak dira, bai eta herritartasun aktiboa, gizarte-inklusioa eta enplegua sustatzeko behar direnak ere.

c) Konpetentzia espezifikoak: arlo bakoitzeko oinarrizko jakintza beharrezkoa den jardueretan edo egoeretan ikasleek baliatzen jakin behar duten neurriak. Konpetentzia espezifikoak, hain zuzen, funtsezko konpetentziak, arloetako oinarrizko jakintza eta ebaluazio-irizpideak lotzeko eta zehazteko elementuak dira.

d) Ebaluazio-irizpideak: arlo bakoitzaren konpetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleek ikaskuntza-prozesuaren une jakin batean iritsi beharko lituzketen jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak.

e) Oinarrizko jakintza: arlo baten berezko edukiak osatzen dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, ikasi beharrekoak direnak konpetentzia espezifikoak eskuratu eta garatuko badira.

f) Ebaluazio hezitzailea: irakasteko eta ikasteko prozesua ebaluatzeko modalitate bat da, izaera arautzailea duena, eta ikasleen zailtasunak eta aurrerapenak hautematea du xede, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokitzeko.

g) Ikas-egoerak: hurrei funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotutako jarduerak garatzeko eskatzen dieten egoerak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dietenak.

h) Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (IDU): curriculum garatzeko printzipioak dira, haur guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna ematen dietenak, eta haien helburua benetako inklusioa eta parte-hartzea lortzea da, ikasle guztientzat ikaskuntzarako oztopoak minimizatuz eta ikasteko aukerak maximizatuz.

### 3. artikulua.– Haur Hezkuntzaren antolaketa.

1.– Haur Hezkuntza borondatezkoa da eta berezko identitatea du. Etapa horrek 0 urtetik –haurra jaiotzen denetik– oro har 6 urtera bitarteko hezkuntza hartzen du, eta bi ziklotan dago egituratuta.

2.– Bi ziklotan dago antolatuta: 0 urtetik 3 urtera bitartekoa da lehen zikloa, eta 3 urtetik 6 urtera bitartekoa bigarrena.

3.– Haur Hezkuntzako bi zikloek izaera globala eta integratua dute.

4.– Haur Hezkuntzako ikasketak ematen dituzten ikastetxeek dekretu honetan ezartzen diren curriculum-elementuetara egokitu behar dute beren irakasle-jarduna, ikastetxe bakoitzak duen autonomia pedagogikoa ezertan galarazi gabe.

### 4. artikulua.– Haur Hezkuntzaren xedeak.

1.– Haur Hezkuntzaren xedea da haur guztien garapen integrala eta harmonikoa dimentsio guztietan –fisikoan, emozionalean, sexualean, afektiboan, sozialean, kognitiboan eta artistikoan– lortzen laguntzea, autonomia pertsonala bultzatuz eta progresiboki beren buruaren irudi positibo eta orekatua sortzera bultzatuz, eta orobat bizikidetzarako balio zibikoetan oinarritutako hezkuntzan laguntzea. Hori guztia, familiekin lankidetzan estuan arituz.

2.– Haur Hezkuntzaren xedea erdiesteko, behar-beharrezkoa da:

a) Haurraren garapen integrala sustatzea, haurraren ongizatea, sozializazioa eta hezkuntza kontuan hartuta eta haren eskubideak errespetatuz, eta haren potentzialtasun guztien garapena sustatzea, familiekin elkarlanean arituz.

b) Desberdintasunak gainditzen dituen prebentzio-hezkuntza bat sustatzea, egoera sozial edo pertsonal ahulenean daudenei arreta emateko eta ekitatea lortzeko ahalegina eginez.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan elebitasun orekatua bermatzeko egoera egokiak ahalbidetzea eta sustatzea hezkuntza-ekintzaren hasieratik.

5. artikulua.– Haur Hezkuntzaren printzipio orokorrak.

1.– Etapa honek haurren ongizate fisikoa eta emozionala bermatu eta sustatuko du eskola-esparruan, eta horrek ekarriko du haurrak modu progresiboan pertsona gisa bete-betean garatzea.

2.– Haur Hezkuntza globala da, eta ikasleen arteko ekitatea bermatu behar du. Horretarako, sustatu behar du, batetik, neska-mutiletan tratu- eta aukera-berdintasuna izatea eta, bestetik, sexu-, genero-, etnia-, arraza- eta jatorri-aniztasuna, gaitasun funtzionalen aniztasuna eta egoera pertsonal, sozioekonomiko eta kulturalen aniztasuna onartzea, norberaren identitatea errespetatuz eta aniztasuna baloraturaz.

3.– Ikasleentzako arretan eta hezkuntza-orientazioan arreta berezia jarriko da autoezagutza, ingurunearen aurkikuntza eta esplorazioa eta komunikazioa sustatzeko, ikasleen potentzialtasunak ahal den gehiena garatuz. Familiekin batera lan egingo da, beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan lagundu dezaten.

4.– Haur Hezkuntzan bi zikloen arteko koherentzia gorde behar da, batetik bestera igarotzen laguntzeko.

5.– Ekitatearen eta inklusioaren printzipioak bermatze aldera, Haur Hezkuntzako programazioan, kudeaketan eta garapenean erantzuna emango zaio jatorri kultural, sozial eta ekonomikoko desberdintasunek haurren ikaskuntzan eta bilakaeran dituzten ondorioak konpentsatzeari, baita berariazko hezkuntza-laguntzaren premiak goiz detektatzeari eta horiei arreta goiztiarra emateari ere.

6.– Helburu horrekin berarekin, hartzten diren antolaketa-, metodologia- eta curriculum-neurriek ikaskuntzarako diseinu unibertsalaren printzipioei jarraituko diete.

7.– Hezkuntza-etapa honen bigarren zikloa doakoa izango da. Lehen zikloan, kalitatezko eta doako eskaintza publikoaren eskaintza sustatuko da.

6. artikulua.– Haur Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak.

1.– Funtsezko konpetentzia guztien garapen integratua eta ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratutako irakasteko eta ikasteko metodologiak inplementatuko dira, inklusibitatearen eta ekitatearen printzipioen barruan.

2.– Etapa honetako bi zikloetan, modu progresiboan hartuko dira kontuan kudeaketa afektiboa eta emozionala, gorputzaren mugimendua, gorputza kontrolatzeko ohiturak, komunikazioaren eta hizkuntzaren adierazpenak, elkarbizitzarako eta gizarte-harremanetarako funtsezko jarraibideak, bai eta ingurunea, bertan bizi diren izaki bizidunak eta ingurune horren ezaugarri fisiko eta sozialak deskubritzearen eta baloratzearen ekintza ere. Balioetan oinarritutako hezkuntza ere sartzen da.

3.– Gainera, hurrek autonomia pertsonala eskuratzea eta beren buruaren irudi positiboa, orekatua, berdintasunezkoa eta estereotipo diskriminatzailerik gabea eratzea sustatuko da.

4.– Adin hauetako hizkuntza eta pertzepzio-modu espezifiko guztiak garatzeko lan egingo da, haurren potentzialtasun guztiak garatzeko, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak eta haren Batzordearen Ohar Orokorrek definitzen duten haurren berriazko kulturarekin bat etorriz.

5.– Praktika metodologikoak ikasketa-esperientzia esanguratsu eta emozionalki positiboetan, esperimentazioan eta jolasean oinarrituko dira. Afektibitate- eta konfiantza-giroan gauzatuko dira, autoestimua eta gizarteratzea indartzeko eta atxikimendu segurua ezartzeko, haurrak familia-inguruntetik eskola-ingurunera ondo igarotzen direla eta zikloen artean eta etapen artean etenik ez dagoela zainduz.

6.– Era berean, hurrek ingurune naturalean lehenengo esplorazioak eta hurbilketak egitea bultzatuko da. Horrez gain, kontsumo arduratsuaren eta jasangarriaren aldeko hezkuntza eta osasuna sustatzea eta osasun-hezkuntza sartu behar dira.

7.– Ahozkotasanak zeregin nabarmena du etapa honetan. Bi hizkuntza ofizialak ikastea bultzatuko da, euskararen erabilera sustatuta eta haurren familia-hizkuntzetatik euskarara igarotzea erraztuta.

8.– Hezkuntza-ekintza inklusiboak askotariko esperientziak, erreferenteak eta ikaskuntzak eskaini behar ditu ikasle guztientzat, kulturarteko ikuspegi globaletik, eta ez etnozentrilotik eta androzentrilotik, eta horiek haur bakoitzaren bilakaerara eta lan-erritmora egokitu behar dira.

7. artikulua.– Haur Hezkuntzaren helburuak.

Haur Hezkuntzak honako hauek egiteko gaitasuna garatzen lagundu behar dio haurrari:

- a) Norberaren gorputza eta besteena ezagutzea, baita harekin zer egin dezakeen jakitea ere, eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- b) Bere ingurune familiarra, naturala eta soziala behatzea eta arakatzea.
- c) Bere ohiko jardueretan pixkanaka autonomia lortzea.
- d) Gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzea eta haiek erregulatzen hastea.
- e) Besteekin harremanak berdintasunean izatea eta pixkanaka elkarbizitzarako eta gizarte-harremanetarako funtsezko jarraibideak eskuratzea, baita enpatia erabiltzen eta gatazkak era baketsuan eta batere indarkeriarik gabe konpontzen trebatzea ere.
- f) Komunikazio-trebetasunak garatzea zenbait hizkuntza eta adierazpidetan.
- g) Komunikazio-trebetasun linguistikoak garatzea bi hizkuntza ofizialetan, euskararen erabilera sustatuta.
- h) Trebetasun logiko-matematikoak, mugimenduak, keinuak eta erritmoak ikasten hastea eta irakurtzen eta idazten hastea.
- i) Estereotipoak gainditzea eta pertsonen berdintasuna sustatzen duten arau sozialak sustatzea, aplikatzea eta garatzea.

8. artikulua.– Hizkuntza-esparrua.

1.– Hezkuntza-sistemaren helburua da haur guztien hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak kulturarteko ikuspegi eleaniztun batetik abiatuta garatzea. Horretarako, bi hizkuntza ofizialak ikastea sustatuko da, haurren familien hizkuntza kontuan hartuta, eta euskara sustatuko da komunikazio-hizkuntzatzat. Haurrak atzerriko hizkuntza bat ikasten eta erabiltzen hasteko irakaskuntza ere eman ahal izango dute ikastetxeek.

2.– Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza antolatzeko eta hizkuntzak tratatu eta erabiltzeko irizpideak haurren eta haien ingurunearen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta zehaztuko dira, ikastetxeen autonomiaren esparruan. Indarrean den legediarekin bat etorrira, ikastetxeak hartzen dituen erabaki guztiak ikastetxearen Hezkuntza-proiektuaren barruko Hizkuntza-proiektuan zehaztu behar dira, zeinetan planifikatu behar baitira haurrek hizkuntzak ikasteko, erabiltzeko eta hizkuntzekiko jarrera positiboa garatzeko bideak. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak Hizkuntza-proiektuon jarraipena eta ebaluazioa egingo du.

3.– Ikastetxean bertan garatzen diren jardueretan eta kanpo-proiektuak jardueretan adierazpidea euskara izatea sustatu eta ziurtatuko da.

4.– Komunikazio- eta hizkuntza-kompetentziaren garapena zeharka landuko da curriculumeko arloen testuinguruan, eta, horretarako, hizkuntza testuinguruan kokatutako egoera funtzional, atsegina eta esanguratsu batean ikastea eta irakastea bermatu behar da.

5.– Euskal Hezkuntza Sistemari berandu sartzen diren ikasle atzerritarrak hartzeko eta haiei hizkuntza-arreta emateko, ikasle horien inklusioa ahalbidetuko duten prestakuntza-programa integralak behar dira.

6.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak irakasleak prestatzeko eta trebatzeko plan bat egingo du, hizkuntzen esparruan hizkuntza- eta metodologia-kompetentziak hobetzeko.

#### 9. artikulua.– Funtsezko kompetentziak.

1.– Funtsezko kompetentziak dira haurrek arrakastaz aurrera egin dezaten eta bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin diezaieten ezinbestekotzat jotzen diren jardunak (l. eranskina). Haur-etapan, ahaleginak egingo dira funtsezko kompetentzia horiek hurrengo hezkuntza-etapetan bete-betean garatzeko behar diren oinarriak finkatzeko.

2.– Funtsezko kompetentziak benetan eskuratzeko, ikastetxeek ikasteko jarduerak eta egoera integratuak ahalbidetzen dituzten leku, material eta esku-hartzeak diseinatu behar dituzte, haurri ikaskuntzaren emaitzak hobetuz joateko aukera ematen diotenak kompetentzia bat baino gehiago aldi berean garatuz.

3.– Haurrek funtsezko kompetentzia hauek garatu behar dituzte:

- a) Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia,
- b) Kompetentzia eleaniztuna,
- c) Matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniariarako kompetentzia,
- d) Kompetentzia digitala,
- e) Kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,
- f) Herritartasunerako kompetentzia,
- g) Ekintzailera-kompetentzia,

h) Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

10. artikulua.– Konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak.

1.– Arlo bakoitzeko konpetentzia espezifikoak erreferentziak izango dira etapako bi zikloetarako, baita ebaluazio-irizpideak eta edukiak ere. Edukiak oinarrizko jakintza gisa adierazita daude (II. eranskina). Curriculum-elementu horiek orientazio modura ezartzen dira lehen ziklorako, eta, etapako helburuekin batera, bigarren zikloko funtsezko ikasketak osatzen dituzte.

2.– Konpetentziak eskuratzeko eta garatzeko, irakasle-taldeak ikasteko egoerak ahalbidetzen dituzten toki, material eta esku-hartzeak diseinatu behar ditu, bat etorrita III. eranskinean ezartzen diren printzipioekin eta hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak xedatzen duenarekin.

## II. KAPITULUA

### CURRICULUMA

11. artikulua.– Curriculumaren alderdi orokorrak.

1.– Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako alderdi hauek hartzen ditu curriculumak: Haur Hezkuntzako ikasketetako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak zehazten dituzten helburuak, arloetako konpetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak), ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintza gisa enuntziatutako edukiak eta metodo pedagogikoak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegorako Haur Hezkuntzako curriculumak dekretu honen II. eranskinean jasota dago.

3.– Dekretu honek curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen ditu, Haur Hezkuntzako funtsezko ikasketak osatzen dituztenak.

4.– Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, Haur Hezkuntzako curriculumak garatu, eta, hala badagokio, osatu behar dute. Zehaztaper hori ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren parte izango da.

12. artikulua.– Arloak.

1.– Haur Hezkuntzako hezkuntza-edukiak haurren esperientziaren eta garapenaren berezko inguruneei dagozkien arloetan antolatuta daude, eta haurrentzat interesa eta esanahia duten ikaskuntza-proposamen globalizatuen bidez heldu behar zaie.

2.– Haur Hezkuntzako arloak honako hauek dira:

a) Harmonian haztea.

b) Ingurunea deskubritzea eta arakatzea.

c) Errealitatea komunikatzea eta irudikatzea.

3.– Elkarren artean lotura estua duten esperientziak hartu behar dira arlotzat, eta, beraz, ikas-egoera global, esanguratsu eta estimulatzailerak eratzerak bultzatzen duen hezkuntza-plan teamendu bat beharko da, non ikas-egoera horiek lagundu beharko baitute harremanak ezartzen beren elementu guztien artean. Egoera horiek berdinen arteko interakzioa sustatu behar dute, eta haurren aniztasuna kontuan hartu, ikuspegi inklusiboarekin.



## III. KAPITULUA

## PEDAGOGIA - ETA KUDEAKETA-AUTONOMIA

## 13. artikulua.– Ikastetxeen autonomia.

1.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen pedagogia- eta kudeaketa-autonomia sustatuko du. Gainera, irakasleen talde-lana eta ikerketa-jarduera sustatuko ditu, heziketa-praktikatik abiatuta.

2.– Ikastetxeek autonomia izango dute curriculumak zehazteko, eta, horiek garatzeko, beren hezkuntza-proiektuan ezarritakoa hartuko dute erreferentziatzat. Autonomia hau, era berean, islatuta geratzen da ikastetxe bakoitzak garatzen dituen proiektuetan, zeinek Hezkuntza-proiektua ere hartuko baitute erreferentziatzat. Proiektu guztietan, beharrezkoa da curriculumaren gaineko erabakiak eta antolakuntzaren gainekoak bat etortzea.

3.– Ikastetxe bakoitzak bere curriculuma garatuko du. Taldeak eta ikasgaiak malgutasunez antola ditzakete; ikasleen ezaugarrien arabera antolaketa-neurri egokienak eta ezaugarri haien arabera aniztasunari arreta emateko neurri egokienak hartuz.

4.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarritako curriculumak zehaztu edo egokituko dituzte ikastetxeek, eta beren hezkuntza-proiektuan islatuko dute hori, lehentasuna emanez herri-tartasun aktibora bideratutako ikaskuntza kompetentzialaren berezko printzipioak, helburuak eta metodologia sustatzeari eta garatzeari.

5.– Zuzendaritza-taldeek, beren autonomia-esparruaren barruan, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatuko dute, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan ezarritako konpromisoak betetzen laguntzeko.

6.– Haur Hezkuntzako helburuak erdiesteko, zuzendaritza-taldeek lankidetzaren eta kooperazio-harremanak hasiko dituzte hurbileko beste erakunde batzuekin; bereziki, udalekin.

7.– Ikastetxeek laguntza emango diete beren inguruneke erakundeei hezkuntza-normalizazioko planak sustatzeko.

8.– Ikastetxeek familien parte-hartzea eta inplikazioa sustatuko dute. Horretarako, ikastetxeek eta guraso-elkarteek prestakuntza-ekintzak garatu ditzakete guraso eta legezko tutoreentzat, eta, horietan, curriculumean ezarritako inklusio- eta hezkidetzaren printzipioak hartuko dituzte kontuan.

9.– Ikastetxea hezkuntza-sistema baten barruan txertatuta dago eta haren arabera dihardu; ikastetxearen autonomiak, bada, behar bezala egokitu behar du testuinguru horretara. Hezkuntza-esparru hau gai da egokiro bateratzeko helburu eta arau komunak eta ikastetxeek hain beharrezkoa duten pedagogia- eta kudeaketa-autonomia; hori horrela izan dadin, baina, nahitaezkoa da ebaluazioa egiteko eta kontuak emateko mekanismoak ezartzea. Hezkuntza-sistemak erronka handiak ditu aurrez aurre, eta egoera horrek ezinbestean eskatzen du ikastetxeen esku uzten diren bitarteko eta baliabideen erabilerari buruzko informazioa publikoa eta gardena izatea, eta, horrekin batera, lortzen diren emaitzen gaineko balorazioa egitea.

## 14. artikulua.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.

1.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, ikastetxearen proposamen integrala jaso behar da, hau da, ikastetxearen hezkuntza-aukera, baita ikastetxeko hezkuntza-komunitateak esku hartzeko prozesua koherentziaz zuzentzeko erreferentzia gisa balio duten orientabide nagusiak ere.

2.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak berariaz jasoko ditu balioak, helburuak eta jarduketak-lehentasanak, eta eskumeneko sailean ezarritako curriculumak ikastetxean nola zehaztuko diren adieraziko du –Klaustroak finkatu eta onartuko du curriculumak zehazteko modua–; orobat, herritar aktiboak hezteko ikaskuntza konpetentzialak berezko dituen printzipioak, helburuak eta metodologia sustatu eta garatuko ditu. Horiez gain, modu transbertsalean landuko ditu balioetan oinarritutako hezkuntza, garapen jasangarria, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza, nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, eskolako jazarpena eta ziberjazarpena, eta bake-kultura eta giza eskubideak. Ikastetxearen estrategia digitala ere jasoko du. Ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektua eratzeko, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruko osagaia izanik, hezkuntza-proiektu osoa eratzeko orduan bezala, arretaz hausnartu eta aztertuko da ikastetxearen ingurunea.

3.– Ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorenari edo itunpeko ikastetxe pribatuetako titularrari dagokio ikastetxearen hezkuntza-proiektua onartzea. Batean zein bestean, argitara eman behar da.

#### 15. artikulua.– Ordutegia.

1.– Haurrak pixkanaka sartuko dira lehen aldiz ikastetxean, eta bertara egokitzeko aldi bat izango dute, behar bezala planifikatua, ikastetxearekiko eta bertan dauden pertsonerekiko atxikimendua sortzen laguntzeko, eta, hartara, haur bakoitzak ingurune seguru eta topaleku atsegina eta amultsu gisa eta bere familia-ingurunearen jarraipen gisa senti dezan ikastetxea.

2.– Etapa guztian, ikuspegi globalizatzailea aintzat hartuta antolatu behar da eskola-ordutegia, eta, jarduerak antolatzean, jarduera-mota eta -erritmo askotarikoak eta atsedena txandakatzeko aukera eman behar da eta jarduerak haur bakoitzaren premietara egokitu. Elikadura, zainketak, ikasteko prozesuak eta erritmo askotariko proposamen edo egoera globalizatzaileak eskainiko dira, ongizate sozioemozionaleko ingurune batean.

3.– Haur Hezkuntzako bigarren zikloko maila bakoitzari urtean 875 ordu dagozkio, gutxienez. Ikasleen jarduerak asteleheneetik ostiralera egingo dira, goizez eta arratsaldez, eta maila bakoitzean gutxienez 25 ordu izango dira astean.

4.– Haurren jardueretan, ikasgela barruko jarduerak zein kanpoko esparru irekietan egiten direnak sartzen dira; ahalegindu behar da kanpoko jarduera horiek egunero egiten. Gainera, naturarekin zuzeneko harremana izateko aukera ematen duten jarduerak bultzatu behar dira.

#### 16. artikulua.– Familiek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan laguntzea eta parte hartzea.

1.– Gurasoek eta legezko tutoreek eskubidea dute haurren eskola-hezkuntzaren jarraipena egiteko eta hartan parte hartzeko.

2.– Gurasoek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan babesa eman eta parte hartu behar dute, ikasleek aurrera egin dezaten ikastetxeek hartzen dituzten laguntza- edo errefortzu-neurrietan lagunduz.

3.– Era berean, ikastetxeek eta familiek edo legezko tutoreek, banaka, hartutako konpromisoak berrikus ditzakete eta aldatzea erabaki dezakete, ikaslearen hezkuntza- edo elkarbizitza-prozesua hobetzeko edo atzemandako premiak edo problemak konpontzeko.

#### 17. artikulua.– Irakasleen konpetentzia-profila, prestakuntza eta ebaluazioa.

1.– Irakasleek beren funtzioei eta zereginiei dagozkien erantzukizun hauek beren gain erarik onenean hartzeko konpetentzia-profil bat izan behar dute:

a) Hurrei bizitzan zehar konpetentziak garatu ahal izateko prozedurak eta jarrerak irakastea.

- b) Ikasgelan ikasteko egoeren proposamenak egitea, aplikatzea eta ebaluatzea, curriculumeke funtsezko konpetentzietan eta konpetentzia espezifikoen eta ikasleen ezaugarrietan oinarrituta.
- c) Irakasteko eta ikasteko prozesuak ikertzea, berritzea, garatzea eta ebaluatzea, horien praktikari eta berak partaide diren prestakuntza-sareei buruzko hausnarketatik abiatuta.
- d) Hurrei ikasteko gogoia sorraraztea.
- e) Proposamen didaktikoak haur bakoitzaren premien arabera doitzea eta egokitzea.
- f) Beste irakasle eta hezkuntza-eragile batzuekin kooperatzea eta ikastetxearen kudeaketan eta etengabeko hobekuntzan parte hartzea.
- g) Jarduerak gure erkidegoko hizkuntza ofizialetan eta, hala badagokio, atzerriko hizkuntzaren batean garatzea, gure hezkuntza-sistema elebiduna eta eleaniztuna dela kontuan hartuta.
- h) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak curriculumean erabiltzea eta integratzea, hezkuntza-etapa honen ezaugarri eta beharretara egokituta, familiekin elkarlanean arituta eta haien erantzukizunarekin bat etorrita.
- i) Beren lanbideari eta gizarte-konpromisoari buruzko ikuspegi etikoa garatzea, aldaketak eta berrikuntzak eragiteko gai direnez gero.
- j) Problema eta gatazkak modu konstruktiboan ebaztea, ikasleek konpetentzia pertsonalak eta harremanetakoak garatzeko tresna gisa erabiliz.
- k) Beren prestakuntza jarraitua planifikatzea, norberaren praktikari buruzko hausnarketan oinarrituta.

2.– Irakasleen prestakuntzaren helburua da haurri garapen pertsonal eta afektiboan eta konpetentzien garapenean laguntzeko behar den konpetentzia-profila lortzea. Prestakuntza-prozesuetan arreta berezia jarri behar zaie hezkuntza inklusiboari, hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta hezkuntzan laguntza berezia eta berariazkoa behar duten kolektiboentzako arreta egokiari. Era berean, ikastetxeen testuinguruan berdintasunaren, jazarpenaren eta tratu txarren arloak lantzeko prestakuntza espezifikoa ere jaso beharko da. Gainera, haurren aurkako indarkeria prebenitzeko, atzemateko eta horren aurrean ekiteko, hezkuntza-administrazioak irakasleentzako prestakuntza-jarduerak planifikatuko ditu, jarduera horien eskaintza oparoa eta doakoa dela bermatuko du eta irakasleak jarduera horietan parte har dezaten sustatzeko neurri egokiak ezarriko ditu. Ikastetxe bakoitzaren premien arabera hautatuko da prestakuntza espezifikoa, hausnarketa-prozesuetatik ateratako ondorioak aintzat hartuta.

3.– Hezkuntza-komunitateko kide guztien koordinazioa eta kooperazioa sustatuko da ikastetxeko hezkuntza- eta antolaketa-esparru guztietan. Era berean, inguruneke beste ikastetxe eta hezkuntza-eragile batzuekin lankidetzan aritzeko eta kooperatzeko ekintzak sustatuko dira. Irakasleek prozesu horretan lagundu eta parte hartu behar dute.

4.– Irakasleen konpetentziak hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ebaluatuko ditu. Ebaluazio horretan, irakasleek ere parte hartuko dute, beren garapen profesionala hobetzen eta ebaluazio horretatik eratoritzen diren prestakuntza-ekintzak planifikatzen laguntzeko.

18. artikulua.– Aniztasunari hezkuntza-erantzuna ematea hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan.

1.– Eskola inklusiboaren esparruan, haur guztiek behar dute hezkuntzaren arreta, eta, egoera arruntetan, guztiek izan behar dute hezkuntza jasotzeko eta hezkuntza-arrakasta izateko beharrezkoak diren neurri eta laguntzen onuradun, bidezkoa den era batean eta guztiei aukera berberak emanez.

2.– Aniztasunari erantzuteko neurriak, alde horretatik, ikasteko eta parte hartzeko oztopoak gainditzeko asmoz egiten diren hezkuntza-jarduketa guztiak dira. Eskolak ikasleen aniztasunari erantzun diezaion profesionalek erabiltzen duten testuinguruko edozein elementu (pertsonala, antolaketakoa, materiala edo metodologikoa) jotzen da laguntzat.

3.– Aniztasunari erantzuteko neurriek ingurune normalizatu eta inklusibo batean haurrek dituzten hezkuntza-premiei erantzun behar diete, eta, betiere, Haur Hezkuntzako helburuak lortzeko bidea eman behar diete. Horretarako, haurren interesak, motibazioak eta ikasteko gaitasuna kontuan hartu behar dira.

4.– Hezkuntza-premiak goiz atzematea oinarrizko jarduketa-printzipio bat da eskolaldiaren hasieratik. Irakasle eta hezkuntza-langile guztiek aktiboki parte hartu behar dute inklusiorako oztopoak goiz atzematen. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak onartutako programak eta protokoloak aginduzkoak izango dira, eta funts publikoekin babestutako ikastetxe guztietan aplikatu behar dira.

5.– Ikastetxeei dagokie ikaskuntzarako diseinu unibertsalaren ikuspegian oinarritutako elkarbizitza- eta ikaskuntza-ingurune seguruak sortzea eta eraginkortasunez ziurtatzea etapa batetik besterako urratsak eta prestakuntza-ibilbideak.

#### 19. artikulua.– Trantsizioa.

Ikastetxeek mekanismo batzuk aurreikusi behar dituzte koordinaziorako eta hezkuntza-sistemak beharrezkoa duen informazioa elkarri emateko, ziklo eta etapa batzuetatik besteetara igarotzean –ikastetxez aldatu zein ez– etenik egon ez dadin haurren hezkuntza-prozesuan, eta hezkuntza-koherentzia eta prestakuntza-jarraitutasuna ziurtatu dadin. Mekanismo horiek, eta haien barruan jatorrizko eta helmugako ikastetxeetako profesionalen arteko kolaborazioak ezartzea sartzen da, behar-beharrezkoak dira berariazko hezkuntza-laguntzaren premiak dituzten ikasleen kasuan.

## IV. KAPITULUA

### EBALUAZIOA

#### 20. artikulua.– Ikaskuntzen ebaluazioa.

1.– Haur Hezkuntzan, haurren ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa funtsezko osagaia da, eta arretaz planifikatu eta garatu behar da irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruan.

2.– Ebaluazioak globala, jarraitua eta hezigarria izan behar du. Zuzeneko behaketa sistematikoa izango da ebaluazio-prozesuaren teknika nagusia.

3.– Etapa honetako ebaluazioak haur bakoitzaren hasierako egoera eta bilakaeraren erritmoa eta ezaugarriak identifikatzera bideratuta egon behar du. Horretarako, arlo bakoitzean ziklo bakoitzerako ezarritako ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziazat.

4.– Ebaluazio-prozesuak irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzen lagundu behar du, eta, horretarako, erabilitako estrategia metodologikoak eta baliabideak egokiak diren baloratu behar da. Helburu horrekin, tartean diren profesional guztiek beren hezkuntza-praktika ebaluatuko dute.

5.– Familiek edo legezko tutoreek seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuaren bilakaeran parte hartu eta lagundu behar dute, haien ebaluazioari buruzko erabakiak ezagutu behar dituzte eta ikastetxeek haurren hezkuntza-aurrerapena errazteko hartzen dituzten neurrietan lagundu.

6.– Irakasleek, haurren ikaskuntzaz gain, irakaskuntza-prozesua eta beren praktika ebaluatuko dituzte, curriculumean aurreikusitako konpetentziak lortzeari dagokionez. Gutxienez hiruhileko bakoitzaren amaieran, ziklo bakoitzeko irakasle-taldeak ebaluazioaren emaitzak jasoko ditu, eta behar diren aldaketak proposatuko ditu edo behar diren erabakiak hartuko ditu irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua bideratzeko.

#### 21. artikulua.– Eskola-orientazioaren txosten indibiduala.

1.– Tutoreak eskola-orientazioaren txosten indibiduala egin behar du, gurasoei edo legezko tutoreei informazioa emateko. Txosten hori Haur Hezkuntzaren amaieran egitekoa da, baita ezohiko egoerek hala eskatzen dutenean ere, hala nola hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak hurrengo ziklora igarotzen ez direnean.

2.– Haur Hezkuntza amaitzean egiten den eskola-orientazioaren txosten indibidualak, gutxienez, funtsezko konpetentzietan zer maila eskuratu den adierazi behar du, eta konpetentzia horietatik ikasle bakoitzaren hezkuntza-aurrerapena gehien baldintzatzen dutenak azpimarratu, baita arreta indibidualizatua bermatzeko garrantzitsutzat jotzen diren alderdiak ere.

3.– Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara igarotzen laguntze aldera, arreta berezia jarriko da bi etapen arteko koordinazioan, sortzen diren desberdintasun pedagogikoak eta antolaketakoak gainditzeko eta ikasleen aurrerapen akademikoan desorekarik ez izateko.

#### 22. artikulua.– Ebaluazio-dokumentu ofizialak.

Ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: ikasketa-espeditentea, zikloaren amaierako ebaluazio-aktak, historia akademikoa eta, hala badagokio, lekualdatzeagatik egindako txosten pertsonala.

#### 23. artikulua.– Ebaluazio-prozesua gainbegiratzea.

1.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio hala haurren nola irakaskuntzaren ebaluazio-prozesua gainbegiratzea.

2.– Era berean, Hezkuntzako Ikuskaritzak arreta berezia jarriko du berariazko hezkuntza-laguntzaren premiak dituzten haurren lan-plan indibidualizatuak edo plan horiek egitea eskatzen duen edozein egoerak dakartzanak behar bezala prestatzen, kudeatzen eta ebaluatzen diren ikusteko.

3.– Hezkuntzako Ikuskaritzak ikastetxe publikoetan nola irakasten den ebaluatzeko zereginean parte hartu behar du. Ebaluazio horren helburu nagusia da irakasteko jardunaren kalitatea bermatzea eta irakasleen hobekuntza profesionalerako eta ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzeko neurriak hartzeko orduan aholku ematea.

#### 24. artikulua.– Egiazkotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna.

Ikasleen datu pertsonalak lortzeari, ikastetxe batzuek datu horiek beste batzuei lagatzeari eta datu horien kudeaketaren segurtasunari eta konfidentzialtasunari dagokienez, indarrean dagoen

2023ko ekainaren 9a, ostirala

datu pertsonalak babesteari buruzko legedian xedatutakoari jarraituko zaio, eta, betiere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ezartzeko egutegia.

Dekretu honetan araututako ikasketen curriculum 2022-2023ko ikasturtean ezartzen da.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erlijioaren irakaskuntza.

1.– Ikasturtea hasi baino lehen, bigarren zikloko haurren familiek edo, hala badagokio, legezko tutoreek adierazi behar dute ea hurrek erlijio-ikasketak jaso ditzaten nahi duten ala ez.

2.– Erlijioa, gehienez ere, astean ordubetez irakatsiko da Haur Hezkuntzako bigarren zikloan.

3.– Hezkuntza-administrazioak zainduko du erlijioaren irakaskuntzan ikasle guztien eta haien gurasoen edo legezko tutoreen eskubideak errespetatzen direla eta irakaskuntza hori jasotzeak edo ez jasotzeak ez dakarrela inolako diskriminaziorik.

4.– Erlijio katolikoaren irakaskuntza bat etorriko da Egoitza Santuak eta Espainiako Estatuak 1979ko urtarrilaren 3an elkarrekin izenpetutako Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioarekin.

5.– Beste erlijio batzuen irakaskuntza bat etorriko da Espainiako Estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako lankidetzak-akordioetan erabakitakoarekin eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio batzuekin izenpetzen diren akordioetan erabakitakoarekin. Haien arabera zehaztu behar da Erlijioaren curriculum.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 30ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

## MAIATZAREN 30EKO 75/2023 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

## HAUR HEZKUNTZAKO FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

Haur Hezkuntzak haurren garapen integrala eta harmonikoa bultzatu nahi du, dimentsio guztietan: fisikoan, emozionalean, afektiboan, sozialean, kognitiboan eta artistikoan, autonomia pertsonala sustatuz eta beren buruaren irudi positiboa eta orekatua sortuz, bai eta bizikidetzarako balio zibikoetan hezteara ere. Hori guztia, familiekin lankidetzara estuan. Etapa honek izaera globala du hezkuntza-orientazioari dagokionez, bere ahalmenen bidez autoezagutza, ingurunearen aurkikuntza eta esplorazioa eta komunikazioa sustatzeko.

Haur bakoitza potentzial handiarekin jaiotzen da, baina bizi duena izango da potentzial hori noraino adieraziko den zehaztuko duena. Zirkuitu neuronal iraunkor berriak sortzeko gaitasuna, burmuineko egiturak sortu eta indartzeko gaitasuna eta potentzial oro lortzeko gaitasuna oso goiz gertatzen da garun-garapen handieneko etapetan: haurdunaldian, jaiotzean eta bizitzako lehen hiru urteetan, batez ere lehenengoan. Lehenengo urte horretan, haurraren potentziala erabatekoa dela ziurtatu behar da, eta esertzeko, ibiltzeko edo hitz egiteko ez ezik, konfiantza, segurtasuna eta gaitasuna izateko, emozioak hobeto kontrolatzeko, besteekin harreman onak izateko eta eskolan zailtasunik gabe ikasteko behar dituen trebetasunak sortzeko aukera eman behar da. Adibidez, mugimenduari esker lortutako helduek beste eremu guztietan helduek ahalbidetuko du.

Bizitzako lehen urteetan egiten den garapena dela eta, Haur Hezkuntzako etapa da ikaskuntza jarraiturako funtsezko konpetentziak eskuratzeko prozesuaren hasiera. Konpetentzia horiek Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioan jasota daude, eta dekretu honetara egokitu dira. Konpetentzia horiek honako hauek dira:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Konpetentzia eleaniztuna.
- Matematikarako konpetentzia eta zientziako, teknologiko eta ingeniarietarako konpetentzia.
- Konpetentzia digitala.
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko konpetentzia.
- Herritarren konpetentzia.
- Ekintzaitza-konpetentzia.
- Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako konpetentzia

Gomendioan adierazitakoaren arabera konpetentzien artean hierarkiarik ez dagoen arren, guztiak ere garrantzitsutzat jotzen dira, baina argi dago etapa honetako haurraren garapenak berezko ezaugarri jakin batzuk dituela, eta horrek berekin dakarrela funtsezko konpetentzia batzuek lehentasuna izatea, bai garapen orokorrean, bai ikasgelan lantzeko orduan.

Ez dago muga bereizirik funtsezko konpetentzien artean, baizik eta gainjarri eta lotu egiten dira. Beraz, zeharkako izaera dute, eta bat ere ez dator zuzenean eta modu unibokoan eremu bakar batekin, eta guztiak arlo bakoitzean sortzen diren esperientziako eta haur-garapeneko berezko inguruneei dagozkien ikaskuntzetatik abiatuta eskuratzen eta garatzen dira. Konpetentzien zeharkako izaera horrek Haur Hezkuntzako etaparen berezko ikuspegi globalizatua errazten du.

Irakasleek haurrek funtsezko konpetentziak eskuratzen hastea mimoz zaintzea espero da, hasiera hori izango baita Lehen Hezkuntzan egin beharreko lanaren oinarria. Horretarako, hezkuntza-ekintza egunerokotasunean kokatzen da, eta egunerokotasunean denbora lasaia eta erlaxatua izan behar du, jolas-uneak eta ezinbesteko zaintzak konbinatzen dituen haurraren atsedeen-, elikadura- eta higiene-erritmo eta -beharretan, konfiantza-, segurtasun- eta ongizate-testuingurua bermatuz. Eguneroko bizimoduak ematen dizkion harremanen egonkortasunak aukera ematen dio haurrari bere gaitasunak

ingurune prestatu batean garatzeko, non egin nahi duena aukeratu ahal izateko eskubidea duen jolas-proposamen sorta zabal baten barruan, eta erronka txikiak modu autonomoan gainditzen joan daitekeen.

Heldutasuna dela eta, irakasleak bereziki bultzatu eta landu behar ditu autonomia pertsonalarekin, esfinterren kontrolarekin, tresnak manipulatzeko hastearrekin, ikertzen hastearrekin, talde-jarduerak aurkitzearekin, haren aukerak eta mugak aurkitzearekin eta abarrekin lotutako trebetasunak.

Bigarren ziklotik aurrera, batez ere, erronka berriek, autoezagutza-maila handiagoek, harremanek, hizkuntzek eta abarrek lagunduko dute XXI. mendeko erronkekin lotutako funtsezko kompetentziak gehiago betetzen.

Haur Hezkuntzako oinarrizko irakaskuntzak egitean, funtsezko kompetentzien ikuspegi estrukturala eta funtzionala hartu da kontuan, eta haren hiru dimentsioak —kognitiboa edo ezagutzak; instrumentala edo trebetasunak, eta jarrerazkoa edo jarrerak— haurren garapen integralera bideratutako zeregin esanguratsu eta testuinguruduna modu eraginkorrean ebazteko ekintza zehatzetan txertatu dira, eta, horrela, dekretu honetan ezarritako helburuari erantzuten zaio. Funtsezko kompetentzietan modu globalean heldu behar zaie etapa osatzen duten arlo guztietatik.

Kompetentzietan funtsezko trebetasunak gehitu zaizkie; hala nola, pentsamendu kritikoa, arazoak ebaztea, talde-lana, komunikazio- eta negoziatio-trebetasunak, trebetasun analitikoak, sormena edo kulturen arteko trebetasunak. Horiek haurrei, beren errealitatea deskubritzen, ezagutzen eta ulertzen laguntzen diete, besteak beste, ingurunea eta objektuak, harremanak (gertuenetik gizarte-erakundeetaraino) eta beraien ideiak, asmoak edo bizipenak errespetuz eta sormenez komunikatzeko lengoia anitzak erabiliz.

Kompetentzien garapena etaparen une bakoitzeko errealitatea ulertzeko moduek baldintzatzen dute. Etapa honek izaera globala du eta hezkuntza asmoa jakin batekin bi ziklotan antolatzen dira. Curriculum-elementuak ziklo horietako haurren ezaugarrietara eta berezitasunetara egokitu dira. Lehenengo zikloan, garrantzi berezia du norberaren gorputzak eta indibidualizazioak. Lengoaia ezberdinak erabiliz, haur bakoitzak bere ingurune fisikoan eta sozialean gauzatzen diren harreman eta interakzioak eraikiz joango da. Ibilbide hau norberak egiten duenez, hori guztia haur bakoitzaren erritmo indibiduala errespetatuz gauzatuko da. Horrela, ingurune afektibo, parte-hartzaile eta berdintasunezko batean, konfiantza, ongizatea eta segurtasuna ematen dizkieten funtsezko zainketekiko errespetuaren oinarrizko printzipioak bermatuko dira. Bigarren zikloan, aurrez eskuratutako ikaskuntzak zabaldu eta indartu egiten dira, eta "izaten ikasten" eta "egiten ikasten" laguntzen duten trebetasunak eskuratzearen protagonismoa areagotu egingo da. Horrela, garapeneko autonomia era esanguratsuan garatzeko haur bakoitzak bere zereginak, erantzukizuna eta ekimen-maila propioak landuko ditugu. Bi ziklotan, garapen- eta ikaskuntza-prozesua behaketak, entzute aktiboak eta jardueraren gehitze progresiboak markatzen dute, esperimentazioaren eta jolasaren bidez.

Funtsezko kompetentziak etapako curriculum-elementuetan eta printzipio pedagogikoetan islatzen dira. Printzipio horietako lehena haurren garapen integrala sustatzea da. Horrek haurren beharrak, interesak eta ardurak ezagutzea dakar eta haiei erantzuna ematea. Hori guztia ahalbidetzeko haurren ikasteko moduak, eboluzio-faktoreak eta prozesuak ezagutzea eskatzen du profesionalon aldetik, eta haurren ibilbiderako horien baitako aukerak ematea. Haurren garapenaren arabera eta bizi duten unearen arabera, aukera ematen die autonomia handiagorik egokitzen eta epe labur zein luzera sor daitezkeen erronkei erantzukizunez aurre egiten lagunduko dieten tresnak izateko. Kontuan hartuko dira haur bakoitzaren beharrez eta aukera indibidualak, bai eta haren familia-testuinguruaren ere, eta hezkuntza-inklusioa bermatuko duten ohiko eta ezohiko neurriak ezarriko dira. Horretarako, arreta berezia jarriko da ikasgelako manipulazio-materialaren irisgarritasunean. Era berean, eguneroko jardueren diseinuari diskriminazioa prebenituko duen ikuspegi batetik heldu behar zaio; desgaitasuna duten ikasleengatik ongizate emozionala bermatzeko eta haien gizarteratzea sustatzeko, jarduerak horien garapenean berdinekin elkarrekintza bermatuko da. Era berean, kontuan hartuko dira desgaitasuna duten ikasleengatik komunikazioari eta hizkuntzari dagokienez egon daitezkeen premia espezifikoak.

Beste printzipio pedagogiko honek, esperimentazioan, jolasean, ikaskuntza-esperientzia esanguratsuetan eta emozionalki positiboetan oinarritzen du hezkuntza-praktika. Honen baitan, ikaskuntza haurrek modu aktiboan egiten duten prozesuetatik hartzen da. Honek dakar errealitatean oinarrituta jardutea, norberaren motibazioa, interpretazio anitzak egitea eta bere inguruneko aspektu eta bere garapenari doitutako esanahien ulermenaren baitako esplorazio, deskubrimendu eta



ikaskuntza gauzatzea. Ildo honetan, ikaskuntza-egoerak haurren behar, interes eta jakin-minekin bat egiteko, egoera horiek haurren eta maisu-maistra arteko elkarreaginetik formulatuko dira. Ondorioz, loturak egingo dira berriaren, jakinaren, espermentatutakoaren eta bizitakoaren artean. Ikuspegi horretatik etapako ikaskuntzei ekiteak berekin dakar ikaskuntza-egoera funtzional, esanguratsu eta aberatsak diseinatzea eta garatzea. Haur Hezkuntza osatzen duten eremuen berezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak aldi berean edo elkarren segidan izatea eskatzen dute.

Jarraian, etaparen bidez funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzeko moduetako batzuk jasotzen dira:

## **HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA**

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren garapena estuki lotuta dago, bai ulermenean, bai adierazpenean, gainerako komunikazio-kodeak erabiltzearekin, batez ere keinua eta mugimendua gorputz-hizkuntzaren bidez erabiltzearekin eta irudia eta adierazpena hizkuntza ikonikoarekin erabiltzearekin.

Curriculumak adierazten duen bezala, ikasleak gai izan behar dira beren adinerako egokia den hiztegiarekin modu argi eta koherentean adierazteko; objektuak, pertsonak eta egoerak deskribatzeko; eta beste batzuek irakurri edo kontatutako ipuin edo kontakizun baten informazioa eta bineten, ipuinen, argazkien, piktogramen, euskarri digitaleko irudien, diapositiben, egunkarien eta trafiko-seinaleen ikusizko informazioa ulertzeko, bai eta norberaren kanta memorizatu eta errezipitatzeko ere.

Haur Hezkuntzan, norberaren eta besteen bizipen, emozio eta sentimenduei buruz gero eta konplexutasun eta zuzentasun handiagoko adierazpenak agertzea ahalbidetuko duten ezagutzak, trebetasunak eta eskuratutako jarrerak oinarri hartuta beste haurrekin eta helduekin errespetuzko komunikazio-egoerak sustatzen dira. Komunikazio egoera hauek, gero eta aberatsagoak izango diren edukiez eta intenzionalitatez osatuak eskainiko zaizkie. Konpetentzia honen garapenean hizkuntza eta komunikazioa modu inklusiboan erabiltzea garrantzitsua da, idatzi zein ahozko bereizkeriak saihestuz. Etapa honetan, ahozotasunak funtzio nabarmena du, komunikatzeko, adierazteko eta jokabidea arautzeko tresna nagusia baita. Baita ere, hurrei, errimen, birmoldaketan, igarkizunen eta ipuinen bidez, aukera ematen die literatura-kulturara lehen aldiz hurbiltzeko. Ondorioz, aberastu egiten ditu haien ezagutza soziokulturala eta linguistikoa, aniztasuna errespetatuz eta baloratuz.

EAEko Hezkuntza Sistemaren konpetentzia honek garrantzi berezia du haurrengan, familia-hizkuntza ez den beste hizkuntza batekin (edo birekin) harremanetan sartuko direlako eskolatzen diren lehen egunetik bertatik: gaztelaniarekin, familia-hizkuntza euskara duten haurrek; euskararekin, etxetik gaztelania dakartenek; eta familia hizkuntza hirugarren hizkuntza bat duten haurrek, biek.

Horrela bada, haurrak gutxienez bi hizkuntzatan hasiko dira sozializatzen, beste konpetentzia guztiak garatzen eta inguruarekin hartu emanak izaten. Baina, horrez gain, bereziki familia-hizkuntza euskara ez duten haurren kasuetan, euskaraz komunikatzen hasi eta ikasi egin beharko dute, eta horrek mundu ikuskera berri bat eskainiko die.

Funtsezkoa da haurren eta maisu-maistra arteko elkarrekintza egokia, euskara bezalako hizkuntza bat eskuratzeko; oro har, ez delako familia-hizkuntza. Gainera, pertsona helduak hitzezko eredu bikaina eskaini behar dio haurri.

## **KONPETENTZIA ELEANIZTUNA**

Haurra txiki-txikitatik jabetzen da bere ingurune soziolinguistiko/kulturalaren aniztasunaz. Oso ondo daki bakoitzarekin zein hizkuntza erabili, abestiak/ipuinak.

Familiakoa ez den beste hizkuntza eta kulturekiko harremanari ekiten zaio etapa honetan, haurrengan hizkuntza- eta kultura-aniztasunarekiko errespetuzko eta estimuzko jarrerak sustatuz, bai eta haien hizkuntza-errepertorioa eta kultura eta kultur aberasteko interesa ere. Horrela, elkarriketa eta bizikidetzaren demokratikoa sustatzen dira.

## **MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA ETA ZIENTZIARAKO, TEKNOLOGIARAKO ETA INGENIARITZARAKO KONPETENTZIA**

Haurrek trebetasun logiko matematikoetan hasten dira eta pentsamendu zientifikorako lehen urratsak egiten dituzte jolasaren, manipulazioaren eta esperientzioaren bidez. Haur Hezkuntzako ikaskuntza-prozesua bera, testuinguru seguruetan, aberatsetan eta motibagarrietan planteatzen da. Hauek, haur bakoitzaren ikaskuntza erritmoak errespetatuz haurraren errealitatea osatzen duten elementuekiko jakin-minetik eta esperientzietatik planteatuko da, betiere hezkidetzaren ikuspegia kontuan izanda. Helburu horrekin, ingurune natural eta sozial hurbileko fenomeno batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ingurumena eta harremanak estimatzeko eta ohitura osasungarriak hartzen hasteko, haurra, behatzera, sailkatzera, kuantifikatzera, eraikitzea, nor bere buruari galderak egitera, probatzera eta egiaztatzea gonbidatuko dugu. Konpetentzia hau garatzeko, arreta berezia eskaintzen zaio oinarrizko zenbakizko trebetasunak garatzeko prozesuei, objektuak manipulatzeari eta fenomenoak egiaztatzeari. Konpetentzia horren bidez, mundu fisikoarekin elkarreragiteko trebetasuna garatu behar da, bai alderdi naturaletan, bai giza ekintzak sortutakoetan. Horrela, errazagoa izango da gertaerak ulertzea, ondorioak aurreikustea eta norberaren, gainerako gizonen eta emakumeen eta gainerako izaki bizidunen bizibaldintzak hobetzera eta babestera bideratutako jarduera gauzatzea.

## **KONPETENTZIA DIGITALA**

Eta honetan, alfabetatze digitalaren prozesua hasten da, eta horrek, besteak beste, informazioa, komunikazioa eta lankidetzaren eskuratzea eta tratatzea dakar, bai eta teknologia digitalen bidez edukien baliabideak berrerabiltzea eta horiek modu osasungarrian eta arduratsuan erabiltzea ere. Kontuan izan behar da haurrari informazioa hainbat bidetatik iritsiko zaiola, besteak beste, bide digitaletatik. Haurren konpetentzia digitala pixkanaka garatuko da proposamen eta sekuentzia didaktiko teknopedagogikoen bidez. Horietan, berez teknologia digitala erabiltzeaz gain, azken helburua ikaskuntzetan eta gaitasun-garapenean laguntzea izango da. Hori horrela, tresna digital horiek modu osasungarrian eta arduratsuan erabiltzea izango da eskolaren zeregina.

## **KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIA**

Nabarmenki garrantzitsua da etapa honetan haurrak bere emozioak eta sentimenduak ezagutzen, adierazten eta kontrolatzen hastea bai eta besteen emozioak eta sentimenduak identifikatzen hastea. Bide honetan, ulermen eta empatia jarrerak garatzen joango dira. Etapa honetan eskolaratzeak familiaz gain, bestelako ingurune bat edo batzuk deskubritzea dakar. Bestalde, etapa honetan eskolatzeak familiakoa ez den beste ingurune bat aurkitzea ere esan nahi du. Ingurune horretan, gizartean ikasteko gogobetetasuna sentitzen da, norberaren esperientzia beste pertsona batzuekin partekatuz eta haiekin modu eraikitzailean lankidetzan arituz.

Testuinguru integratzaile eta lagungarri batean, ingurune sozialean, gero eta autonomia gehiagorekin gatazkak elkarriketaren eta kudeatzen laguntzeko baliabide pertsonalak eta estrategiak martxan jartzen hasten dira, gero eta modu eraginkorragoan. Horretarako, haurrak baliabide pertsonalak eta estrategiak jartzen hasten dira, gero eta modu eraginkorragoan, gizarte-ingurunean gero eta autonomia handiagoz moldatzen eta gatazkak testuinguru integratzaile eta lagungarri batean elkarriketaren bidez konpontzen laguntzeko.

## **HERRITARTASUN KONPETENTZIA**

Errespetuan, ekitatean, berdintasunean eta bizikidetzan oinarritutako jarrera eredu jantziak eskainiko dizkiete eskolako profesionalek haurrei. Bai eta gatazkak modu baketsuan eta elkarriketaren bidez konpontzeko jarraibideak eskainiko zaizkio, herritartasun demokratikoa gauzatzeko oinarriak ezartze aldera. Era berean, norberaren identitateari eta kulturari lotutako gizarte-gertaerak identifikatzeko gonbita egingo da. Bestalde, iraunkortasunaren balioekin, konpromiso aktiboa sustatzeko eta praktikekin konpromiso aktiboa izateko eredu eta gonbidapena eskainiko da. Horretarako, beren buruarekiko, besteekiko eta ingurunearekiko errespetuzko eta zaintzako jokabideak sortzeko beharrezko baldintzak jarriko dira eskolan, haurrak eguneroko bizitzako errutinetatik abiatuta ohitura osasungarriak eta iraunkorrak barneratzeko.

Une aproposa da bizikidetzako funtsezko arauak betetzeko, ezartzeko eta automatizatzeko. Horrela, tutoreen eta familien artean jarduteko lotura sortuko da.

### **EKINTZAILETZA-KONPETENTZIA**

Sorkuntza eta berrikuntza funtsezko bi faktore dira garapen pertsonalerako, gizarteratzerako eta herritartasun aktiborako. Haur Hezkuntza etapan jolasaren, ikaskuntza proposamen askeen edota gidatuen jolasa ahalbidetzeko proposamen batzuen bidez kuriositatea, jakin-mina, ekimena, irudimena eta ikertzeko eta sortzeko jarrerak sustatzen dira, ideia pertsonalak edo kolektiboak gauzatzeko aukera emanez. Modu honetan, pentsamendu estrategiko eta sortzailearen oinarriak finkatzen dira, arazoak konpontzea, eta adin goiztiarretik sustatzen da analisi kritiko eta eraikitzailea.

Haur-hezkuntzako konpetentzia hori garatzean, haurrek ikaskuntzan jokoan sartzen diren gaitasunez jabetu behar dute, besteak beste, arreta, kontzentrazioa, memoria, ulermena eta hizkuntza-adierazpena edo lorpenaren motibazioa.

### **KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPEN KULTURALERAKO KONPETENTZIA**

Haurrek beren nortasuna libreki eraiki eta aberasteko, etapa honetan ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adieraztea sustatzen da, hainbat lengoia eta forma artistikoren bidez. Era berean, kontzientzia kulturala eta gizartearen parte izatearen sentimendua garatzen laguntzen da, adierazpen kultural eta artistikoetara lehen hurbilketa kritikoa eginez. Horretarako, haurrak mundu plastiko eta artistikora hurbilduko dira, betiere haien interes eta gaitasunetatik abiatuta.

Gure hezkuntza-sisteman, euskal kultura-kontzientzia eta -adierazpenerako gaitasunak garrantzi berezia du haurrengan, haietako asko lehen aldiz jarriko baitira harremanetan euskal kulturarekin.

## MAIATZAREN 30EKO 75/2023 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

## HAUR HEZKUNTZAKO EREMUAK

## 1. EREMUA. HARMONIAN HAZTEN

Harmonia haztearen eremua haurraren alderdi pertsonal eta sozialean oinarrituta dago. Hiru eremuak elkarrekin erlazioa dute eta hortaz banaezinak dira. Alderdi horiek bata bestearengandik banaezinak eta elkarren osagarriak direla ulertzen da eta era progresibo, bateratu eta harmoniatsuan garatzen eta erregulatzen dira. Eremu honek zentzua du beste eremuekin bat egiten duenean. Izan ere, ingurune fisiko eta natural zehatz batean gertatzen da eta hainbat lengoia zein hizkuntza erabiltzen dira norberaren garapenerako.

Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak haur bakoitzaren ezaugarri, behar, interes eta estilo kognitibora egokitu behar dira. Bakoitzaren heltze-erritmo eta estiloarekiko errespetu osoa oinarrituta. Beraz, kontuan hartuko dira gorputzaren eta mugimenduaren garapena; pixkanakako norbanakoaren kontrola eskuratzea, eta nortasunaren eraikuntzaren prozesua, norbere pentsamendurekin, ingurunearekin eta besteekin izandako harremanen ondorioz garatuko dena. Prozesu horretan helduarekiko dependentzia osotik abiatu eta era progresiboan bere garapenaren autonomiarantz aurrera egingo du, norbanako bakoitzak egoeretara egokitzea errazten dioten baliabide eta estrategiak integratzea eta erabiltzea barneratzen duen heinean.

Eremuari dagozkion konpetentzia espezifikoetan, eskainitako hezkuntzaren ondorioz haurrarendik espero diren jardunbideak identifikatuko dira. Horiek etapan zehar haurrek izandako garapen pertsonal eta sozialarekin lotuta daude. Lehenengo hiru konpetentzia espezifikoetan haurraren garapen pertsonalarekin lotutako alderdiak garatuko dira: nortasuna eraikiz doan heinean bere buruaren kontrola eskuratuko du pixkanaka, besteekin harreman afektiboak sortzen hasiko da. Norbanakoak dituen baliabideen esker, egoera ezberdinetara doitzeko ahalmena eta autonomia garatuko du haurrak. Berariazko azken KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK norberaren nortasunaren eraikuntzaren eta identitate hori sortzen den ingurune soziokulturaleko interakzioen arteko beharrezko korrelazioari erreparatzen dio, eta elkarreragin osasuntsuak, iraunkorrak, eraginkorrak, berdintasunezkoak eta errespetuzkoak sustatzearen eta laguntzearen garrantzia azpimarratzen du.

Eremuaren oinarritzko jakintzak bi bloke handitan banatuta daude: bata, norbanakoaren nortasunaren garapenean oinarrituta dago eta bestea, inguru zibiko eta sozialean gauzatzen den interakzioan.

Garapenaren lehen etapetan, gorputzetik bertatik datoz ikaskuntzak, harremanak eta adierazpenak. Gainera, ekintza autonomoaren oinarri ere bada gorputza. Eskola-eremua ume txikiek beren inizatibarekin gauzatutako ekintzak sorrarazten dien gozamina aurkitzeko testuinguru aberatsa izan behar da eta horretarako behar duten laguntza eskaini behar die. Aurkikuntza hori da, hain zuzen, ingurunearekin lotuta duten behar nagusia segurtasun eta lasaitasunezko giro akuilagarri batean. Era horretan, haien gorputza osotasunean eta zatika ezagutzen joango dira, gorputzak eskaintzen dizkien pertzepziorako, ekintzarako, adierazpenerako eta mugimendurako aukerak, baita mugak. Gorputzaren bidez, sentitzen dutena hauteman eta identifikatzeko gai bihurtuko dira eta horiek adierazteko.

Etapan zehar erreflexuzko ekintzetatik gero eta intenzionalagoak diren mugimenduak egitera pasatuko da, aldi berean, gero eta gorputzaren kontrol handiagoa lortuko du. Gero eta trebetasun konplexuagoak eskuratuko dira eguneroko ekintzetan eta mugimendu, zentzumen, sinbolo eta arauen bidezko jolasetan tresnak eta erremintak erabiltzeko beharraren ondorioz. Garrantzitsua da jolasaren eta jolas sinbolikoaren arteko bereizketa egitea. Jolasa eskuztatzearekin, esplorazioarekin eta esperimenduzkoarekin lotuta dago. Jolas sinbolikoa, ordea, haurrak mundua ulertzeko duen modu bakarra da. Jolas sinbolikoaren bidez, haurrak inguratzen duen munduaren konplexutasuna bideratzen du. Hasieran, jolas horretan banaka arituko da eta garapenaren arabera besteekin parteka dezake. Jolas sinbolikoa, beraz, haurrena da, ez helduarena. Jolas horretarako inguruko tresnez baliabideak, baina ez du zertan euskarririk izan behar.

Etapan honetan izaeraren garapena bat dator bestearen desberdina den nortasun propioa eraikitzearekin. Hezkuntzaren esku-hartzeak haurrak norberaren irudi doitua garatzera bideratu eta bide horretan akonpainamendua egin behar du.

Adin honetan deskubritzen du sexualitatea eta hori da sexuaren eta generoaren eraikuntzaren hasiera. Haurrak hezitzaileekin duen hartu-eman orok neurri handi batean gidatzen eta moldatzen du, inguratzen duten helduen harremanetarako estrategiak imitatzeko eta errepikatzeko joera baitu. Estrategia horietan jarrera sexistak normalizatua egon daitezke, hori dela eta, ezinbestekoa da eskola-ingurunean egon daitezkeen bistako edo estalitako diskriminazio-mekanismoak identifikatu eta eraztea.

Afektibitatearen garapena bereziki garrantzitsua da etapa honetan ikaskuntzaren oinarria delako eta haurrak nortasuna eraikitzen duelako. Horregatik, haurrekin hasiera-hasieratik landu beharko eremua da, miaketa, adierazpena eta emozio zein sentimenduen kontrol progresiboarekin batera. Batez ere oinarritzko beharrak asetzearekin lotutako lehenengo emozioen berezko adierazpenak, pixkanaka, forma konplexuagoak hartuko ditu gizarteko arau eta balioak kontuan hartuta. Ingurunearekin izandako interakzioak norberari buruzko informazioa ematen du eta neurri handi batean norbere buruaren irudia eraikitzen laguntzen du. Irudi hori segurtasuna eta norberarekiko konfiantza eta autoestimua garatzearekin lotuta dago.

Zaintzek kalitate-estandarrei erantzun behar diete, eta norberaren buruaz eta aukerez jabetzen lagundu behar dute. Beharrak giro abegikor eta lasaian ase behar dira eta une oro era atseginean bizitzeko beharrezko denbora eskaini behar da. Ongizate horrekin bakarrik lortuko da gainontzeko printzipioek balio esanguratsu orokorra izatea.

Testuinguru horretan, eskola-bizitza errutina egonkorren inguruan antolatzen da. Errutinak erritmo biologikoen arabera antolatuta daude eta pixkanaka elikadura, higie-ne eta deskantsu ohitura osasuntsuak eskuratzeko eginak daude. Pixkanaka, bere gorputzaren zaintzan eta eguneroko bizitzako espazioen zaintzan lagungarri izango diren ohiturak eguneroko jardueren artean txertatzeko inizatiba handituko du. Aldi berean, autonomia pertsonala garatuko du eta kontzientzia piztuko zaio pertsonak eta inguruneak duten interdependentziaren inguruan eta mendekotasun ekologikoaren inguruan. Era horretan dependentzia osoa izatetik beharrak asetzeko nolabaiteko independentzia izatera aurrera egingo du. Era berean, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsuak diren ohitura iraunkorrak eskuratu ditu.

Inguruan dituen pertsona esanguratsuekin kalitatezko lotura afektiboak ezartzeak haurrek errealitateak nola funtzionatzen duen jakiteko eta ulertzeko duten interakzioa eta jakin-mina bultzatuko ditu. Eskola-ingurunean sartzean, gizarte-inguruneke kide direla ikusiko dute: pertsonen arteko harremanak nabarmen zabaltzen dira, lotura berriak sortzen dira eta konfiantza, empatia eta atxikimendua bezalako jarrerak garatzen dira, sozializatzeko oinarri sendoa baitira.

Eskola hezkuntza-espazioak bizikidetzakomunitate txiki bat bihurtzen da, non gizarte-trebetasunak garatzen diren, eta pertsona bakoitzak bere beharrak adieraz ditzake, besteen beharrak errespetatuz, elkarbizitzarako oinarritzko jarraibideak elkarrekiko errespetutik eratortzen direla ulertuta, eta gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzen, eta edozein motatako indarkeria eta diskriminazioa saihestuta.

Aniztasun etniko-kulturalak ahalbidetzen du haurrek gizarteko usadio eta ohitura anitzekin harremanetan egotea eta horien aurrean ikuspuntu kritiko, ireki eta inklusiboa izatea. Ikuspuntu horrekin gizartean dauden adierazpen kultural askotarikoak ezagutu ahal izango ditu eta era horretan, onarpenezko, errespetuzko eta estimuzko jarrera izan.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Gorputzaren ezagutzan eta kontrola garatzen eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz norberaren irudi egokia eraikitzeko.

Haurra bere gorputzak eskaintzen dizkion zentzumen eta baliabideei esker, inguratzen duen orok eskaintzen dizkionaz baliatzean gero eta era doituagoan bere autodeterminazioa, autonomia eta independentzia osatzen joango da. Bere gorputzaren ezagutza, balorazioa eta kontrola izateko funtsezko alderdiak batira. Norbere burua besteengandik bereizitako pertsonatzat hartzea, "Nia"-ren kontzeptua lantzea eta auto irudi doituera eratzea prozesu garrantzitsuak dira. Prozesu horiek norberaren aukerei buruzko kontzientzia hartzea eskatzen dute, norberaren ezaugarriak eta besteekiko desberdintasunak identifikatuz, onarpenera eta errespetua oinarri hartuta. Ingurunearekiko

bat-bateko elkarreraginetatik, sentitzen dituzten sentsazioetatik eta norberaren, objektuen eta ingurunearen miaketatik abiatuta gertatzen dira.

Jolasaren bidez garapen harmoniko eta integrala bultzatzen duten esperientziak bizi dituzte, gero eta gorputzaren kontrol eta autonomia handiagoa eta helduekiko independentzia handiagoa erakutsiz. Norberaren gorputzaren mugitzeko eta sentitzeko aukerak zeintzuk diren probatzeak, lekualdaketetan eta mugimenduetan kontrol dinamiko handiagoa lortzeko balioko du, erronkak gainditzeko eta gero eta gorputz-eskema doituagoa sortzeko. Horrez gain, esploraziorako, eskuztatze eta ohiko tresnak erabiltzeko beharrezko trebetasunak garatzeko ere balioko dio.

## 2. Progresiboki emozioak ezagutzea, adieraztea eta erregulatzea beharrak eta sentimenduak adieraziz ongizate emozionala eta segurtasun afektiboa lortzeko.

Emozioak ezagutzen eta erabiltzen hastea funtsezko tresna da eguneroko bizitzako egoera aldakor eta zalantzazkoei pixkanaka, segurtasunez eta autonomiaz aurre egin ahal izateko. Norberaren beharrak asebetetzean eta jolaseko egoeretan emozioak Niaren garapenarekin, arau eta balio sozialen ezagutzarekin lotuta daude gehien; izan ere, beste pertsonetikiko interakzioen bidez, norberaren emozioak identifikatzen, ulertzen eta erregulatzen eta norberari buruzko informazio baliotsua eskuratzen aurrera egiten da. Horrek guztiak modu erabakigarrian lagunduko du segurtasun-sentimenduak eta konfiantza pertsonaleko sentimenduak barneratzen. Bi alderdi horiek funtsezkoak dira autoestimua eraikitze eta auto irudi doitu eratzeko, estereotipo sexistetatik urrun. Besteenganako konfiantza ere garatzen da eta horrek gizarte-harremanak hobetzen ditu, haurrak proposamen didaktikoetan eta jolasetan bere burua motibatzea eragiten du, eta sentitzen duena, pentsatzen duena, nahiago duena eta interesatzen zaiona hobeto ulertzea eta adieraztea ere eragiten du.

Horrela, oso egoera garrantzitsuak dira haurraren eta familiaren lehenengo etorrera eskolara edo hara joan gabe denboraldi luze baten ondorengo itzulera. Beraz, beharrezkoa da momentu eta egoera horiek aurreikustea, planifikatzea eta diseinatzea bai eta horiek ebaluatzea ere. Aipatutako diseinua haurraren ongizate fisiko eta emozionalean oinarritzen da. Haur bakoitzari dagokion prozesu horretan, ezinbestekoa da honako hau eskaintzea: espazioa, egun eta ordu malguak eta laguntza pertsonala, haurrei eta haien familiei.

Harreman harmoniatsuak eta kalitatezkoak ezartzeak haur bakoitzak bere mugak identifikatu eta gainditu ahal izatea esan nahi du. Norberaren indarguneak indartzea, behar pertsonalak arautzea, ondo egindako lana baloratzea, akatsetatik modu eraikitzailean ikastea zuzenketak modu positiboan onartuz, bere buruari eta inguruneari buruzko ekimenak hartzea, eta helburu errealista sormenez eta erantzukizunez ezartzea, taldearen partaide sentituz.

## 3. Eredu, arau eta ohiturak bereganatzea, aukera propioetan konfiantza eta lorpen sentimenduak garatuz, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsua den bizimodu osasuntsua bultzatzeko.

Ohitura osasuntsu eta iraunkorrak eskuratzea eta pixkanaka eguneroko bizitzan txertatzeak norbere gorputzaren zaintza gero eta autonomia handiagoa lortzea bultzatzen du. Prozesu horretan ezinbestekoa da haurrak berekiko, besteekiko eta ingurumenarekiko errespetuzko ekintzetarako joerak sortzen laguntzen duten arauak buruz hausnartzea. Hori berdintasuna, interdependentzia eta ekologiarekiko eta gizartearekiko ardura kontuan hartzen dituen ikuspuntu batetik abiatuta. Gainera, ondasunen eta baliabideen kontsumo arduratsuari buruzko hausnarketa piztea ere espero da.

Hori guztia eskolako espazioetara transferitzen da, erritmo biologikoen erregulazioa eta norberaren denboretara egokitzea errazteko modu egonkor eta intentzionalen errepikatzen diren praktika sekuentziatu gisa ulertutako errutinak eginez. Horregatik, haurraren ongizatea eta erosotasuna lortzeko beharrezkoa da arreta pertsonaleko uneak izatea, haur bakoitzari tratu individualizatua emanez, batez ere beharrak asetzeari dagokionez, haren erritmo biologikotik abiatuta Horrek guztiak norberaren buruaren pertzepzio doituagoa garatzen laguntzen du, bai eta elikadurarekin, higieinarekin, jantziekin edo atsedenarekin eskuratutako konpetentziaz kontziente izatetik datorren

lorpen sententzia edukitzen lagunduko du. Azkenik, arriskuak prebenitzearen eta istripuak saihestearren garrantziari buruzko ekimenak sustatu behar dira.

4. Berdintasun baldintzak dituzten gizarte-interakzioak ezartzea, laguntasunaren, errespetuaren eta enpatia garrantzia balioetsiz, balio demokratikoetan eta giza eskubideen errespetuan oinarrituta bere nortasun propioa eraikitzeko.

Identitatea eraikitzea hurbileko gizarte-ingurunearekiko elkarrekintzen emaitza da. Besteekin eta munduarekin harreman berriak ezartzeko beharrezkoa da segurtasun- eta konfiantza-sentimenduak ematea atxikimendu-lotura osasuntsu eta egonkorak sortuta. Errespetatuak, maitatuak eta baloratuak sentitu behar dira, lankidetzara, errespetu eta empatiako ingurune batean gizarte-eredu egokiak modu naturalean har ditzaten.

Garapeneko lehen etapetan, haurra besteekiko desberdintzat hartzen hasten da; besteen adierazpen emozionalak hautemateko gai da, baina oraindik ezin du bere ikuspuntua hartu. Helduen interakzioen eta bitartekaritzaren bidez, gizarte-harremanetako eredu egokiak bereganatzen joango da, modu natural eta mailakatuan. Eredu horiek errespetuan, empatian, genero-berdintasunaren sustapenean eta giza eskubideen errespetuan oinarrituko dira.

Taldearen aniztasun soziokulturala aitortzea eta balioestea proposamen didaktikoen eta jolasen bidez sustatu behar da. Horrela, hezkidetzara eta kooperazio prozesuetan ohitura eta tradizio anitzak era kritikoan sustatuko dira eta behar propioak asertzioz komunikatzea eta gainontzekoentzen entzute aktiboa izatea bultzatuko da. Horrela, haurrek tresnak integratzen dituzte laguntza eskaini eta eskatzeko eta gatazkak elkarriketaren bidez kudeatzeko, helburu komun bat lortzeko. Horrek guztiak talde sozial bateko kide izatearen zentzua indartzen du, beste pertsonekin harmonian bizitzen ikasten laguntzen du eta talde-lana errazten du.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

| Lehen zikloa   | Bigarren zikloa  |
|--|--|
| <b>1. konpetentzia espezifikoa</b>   |  |
| 1.1. Ekintzak eta erreakzioak egoera bakoitzera egokitzea inguruarekin izandako interakzio ludiko eta espontaneo bidez, mugimendurako eta hautemateko dituen aukerak esploratuz eta zehaztasuna, koordinazioa eta intenzionalitatea hobetuz. | 1.1. Gorputzaren ezagutzan aurrera egitea ekintzak eta erreakzioak egokituz eta oreka, zentzumeneren pertzepzioa eta mugimenduan koordinazioa garatuz.                 |
| 1.2. Onarpena eta errespetua erakustea norbere gorputzarekiko eta besteekin, horren ezagutza pixkanaka hobetuz.  | 1.2. Segurtasun pertsonala adieraztea jolasetan parte-hartzean eta eguneroko bizitzako egoera ugarietan, bakoitzaren aukeretan konfiantza izanez eta inizatibaz.       |
| 1.3. Segurtasuna, nahitasuna eta konpetentziarekin lotutako sentimenduak adieraztea ekintza bakoitzean.  | 1.3. Hainbat objektu, tresna eta erreminta anitzez baliatzea jolasetan eta eguneroko zereginetan, mugimen xehearen koordinazioaren kontrol progresiboa erakutsiz.      |
| 1.4. Denboraren oinarrituko jakintzen inguruko ezagutzak erabiltzea, eguneroko bizitzako jardueran eta errutinetan eta beste gertaera batzuetan bere burua denboran kokatzeko.   | 1.4. Ekosistemetan (ikasteko espazioetan) eta jolas ez-estereotipatu zuzenduen eta espontaneoentzen testuinguruetan parte hartzea bere aukera pertsonaletara egokituz. |
| <b>2. konpetentzia espezifikoa</b>   |  |
| 2.1. Emozioak eta sentimenduak adieraztea, pixkanaka kontzientzia emozionala eta erregulazio emozionalerako estrategiak garatuz.   | 2.1. Beharrak eta sentimenduak identifikatu eta adieraztea pixkanaka emozioen kontrola egokituz.   |
| 2.2. Beste pertsona batzuekin harremanak izatea maitasuna onartuz eta adieraziz modu aske, seguru, begirunetsuan eta estereotipo mota guztietatik urrun.   | 2.2. Eguneroko egoeretan laguntza eskaintzea eta eskatzea, kooperazioaren onurak eta berdintasuneko harremanak balioetsiz.   |
| 2.3. Ezbehar txikiei aurre egitea, hobetzeko gogoia adierazten duten jarreraren bidez eta laguntza eskatuz   | 2.3. Ezinegonak, gogoko duena eta nahiago duena adieraztea, lorpenekin gogobetuz eta segurtasuna   |

| Lehen zikloa   | Bigarren zikloa  |
|--|--|
| eta eskainiz.  | adieraziz.   |
| <b>3. konpetentzia espezifikoak</b>  |  |
| 3.1. Norberaren eta ingurunearen zaintzarekin lotutako estrategiak eta ohiturak eskuratzea.  | 3.1. Norberaren eta ingurunearen zaintzarekin lotutako jarduerak egitea errespetuzko jarrerarekin, konfiantza eta inizatiba adieraziz.   |
| 3.2. Jardueren denborazko segida, erritmo biologikoak eta eguneroko bizitza egituratzen duten jarraibide soziokulturalak ezagutu eta aurreratzea, elementuekin, prozedurekin eta jarrera zehatzekin lotuz.       | 3.2. Gertaerei eta eguneroko jardueri lotutako denborazko segida errespetatzea taldeari ezarritako errutinetara ohituz eta gainontzeko pertsonekiko errespetuzko portaerak garatuz.  |
| <b>4. konpetentzia espezifikoak</b>  |  |
| 4.1. Lotura eta harreman osasuntsuak ezartzea, gainontzeko pertsonekiko nahitasunezko eta enpatiazko jarreraren bidez.   | 4.1. Jolasetan eta talderako proposamenetan ekimenez parte hartzea, afektu- eta enpatia-jarrerak dituzten beste pertsona batzuekin harremanetan, eta diskriminazio mota guztiak saihestea.                                 |
| 4.2. Lehenago gertuko ingurunean behatutako jokaera eta egoerak errepikatzea, errespetuan, enpatian generoen arteko berdintasunean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutakoak, imitaziozko jolasaren bidez. | 4.2. Jolas sinbolikoaren bidez jokabideak, ekintzak edo egoerak errepikatzea berdinekin elkarreraginean, mota guztietako estereotipoak identifikatuz eta baztertuz.  |
| 4.3. Berdinekin gatazkak kudeatzen hastea pertsona helduaren bitartekaritzarekin, eta akordioak lortzeak dakartzan onuraz eta gogobetetzeaz jabetzen hastea  | 4.3. Era aktiboan parte-hartzea bizikidetasuna erregulatzen duten eta dibertsitateari errespetua eta genero-berdintasuna bezalako balioak bultzatzen dituzten arau sozialei buruzko hausnarketarekin lotutako jardueretan. |
|  | 4.4. Egoera gatazkatsuetan ekintzak kudeatzeko aukerak proposatzea beste pertsona batzuen irizpidea kontuan hartuz.  |
|  | 4.5. Jarrera kritiko batetik eta errespetutik abiatuta bere ingurunean dauden ohitura eta tradizio etniko eta kulturekin lotutako jardueretan parte hartzea, horiek ezagutzeko interesa adieraziz.                         |

### ONARRIZKO JAKINTZAK

| Lehen Zikloa   |
|--|
| <b>A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa.</b>  |
| Norberaren eta inguruko pertsonen irudia deskubritzea eta ezagutzea. Desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea.  |
| Zentzumenean eta mugimenduaren bidez esploratzeko jakin-mina eta interesa. Munduaren zentzumenezko integrazioa hautematerako aukeren bidez.                    |
| Esplorazioa eta esperientzia aktiboak. Mugimendu libre ikaskuntza- eta garapen-iturri gisa.  |
| Beste pertsona batzuekin eta beste objektu batzuekin harremana. Trebetasun berriak ikasteko inizatiba eta jakin-mina.  |
| Eskuztatzearen bidezko esperientzia eta pixkanakako begien eta mugimenduaren koordinazioaren kontrola objektu eta materialekin.                                |
| Mugimenduaren eta posturaren moldaketa eta pixkanakako kontrola eguneroko bizitzako egoeretan.   |
| Egoera arriskutsuak identifikatu eta ekiditeko estrategiak.  |
| Jolasa ongizaterako eta gozameneko ekintza propio gisa. Esploraziozko jolasa, zentzu-mugimenezkoa.   |
| <b>B. Oreak eta afektibitatearen garapena.</b>   |
| Emozio-egoerak identifikatzeko eta egoera aniztetera moldatzeko estrategiak: itxarote-denborak, oinarriko beharrek eta zaintzekin lotutako frustrazio txikiak. |



2023ko ekainaren 9a, ostirala

| Lehen Zikloa   |
|--|
| Oinarrizko emozioen kausa eta ondorioak pixkanaka identifikatzeko jarraibideak.  |
| Emozioen eta berezko adierazpen deigarrienen onarpena eta pixkanakako kontrola.  |
| Segurtasun afektiboa lortzeko estrategietara hurbilpena: laguntza bilatzea, kontaktu afektiboa eskatzea.   |
| <b>C. Norberaren zaintzarako osasuntsuak diren eta naturarenerako mesedegarriak diren bizitza-ohiturak.</b>  |
| Berezko erritmo biologikoen pixkanakako moldaketa taldeko errutinetara.  |
| Zaintzak eta oinarrizko beharrak.  |
| Konpromisoarekin eta norberaren harmoniarekin lotutako errutinak: ekintzen aurrerapena; gizarte-portaera arauak jatorduetan, deskantsuan, higienean, lekualdaketetan, etab.                      |
| Elikadurarekin, higienearekin eta norbere garbitasunarekin, deskantsuarekin edo espazioaren garbitasunarekin lotutako ohitura jasangarri, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsuak direnak. |
| Osasunari mesede egiten dioten eta ongizatea dakarten ekintzak. Itsura osasuntsu eta garbia izateko interesa.  |
| <b>D. Interakzio sozioemozionala ingurunean. Bizitza besteekin batera.</b>   |
| Familia-aniztasuna   |
| Trantsizioa familia-taldetik eskolako gizarte-taldera.   |
| Lehenengo lotura afektiboak. Beste pertsonetikiko interesaren zabalkuntza. Erreferentziazko pertsonen taldearen parte direla eta lotura afektiboa dutela sentitzeko estrategiak.                 |
| Taldea eta eskola gizarteko kidego-talde gisa.   |
| Maitasunezko eta errespetuzko harremanak.  |
| Ohiturak eta portaeraren erregulazioa besteen beharren arabera: entzutea, pazientzia eta laguntza.   |
| Gatazkak kudeatzeko estrategiak.   |
| Itxarote-jokabideak eta parte-hartze aktiboa garatzeko jarraibideak. Ekintza eta jolasetan ardura txikiak hartzeko estrategiak.  |
| Ingurunean dituen ospakizunak, ohiturak eta tradizio etniko eta kulturalak.  |

| Bigarren Zikloa   |
|---|
| <b>A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa.</b>   |
| Gorputzaren irudia bere osotasunean eta zatika: bakoitzaren ezaugarriak eta aldaketa fisikoen pertzepzioa.                              |
| Norberaren buruaren irudia, besteen aurrera egokitzen dena.   |
| Desberdintasunen identifikazioa eta horiekiko errespetua.   |
| Zentzumenak eta zentzumenen funtzioak. Gorputza eta ingurunea.  |
| Mugimendua: koordinazioaren, tonuaren, orekaren eta lekualdaketen pixkanakako kontrola.   |
| Desgaitasun sensorial edo fisikoaren ondorioak eguneroko bizitzan.  |
| Tonuaren eta posturaren kontrol aktiboa objektuen, ekintzen eta egoeren ezaugarrietara egokituz.  |
| Jolasa ekintza atsegingarri eta ikaskuntza iturri gisa. Jolasaren arauak.   |
| Zereginak egiteko pixkanakako autonomia.  |
| <b>B. Oreka eta afektibitatearen garapena.</b>  |
| Norberaren emozio, sentimendu, bizipen, lehentasun eta interesak identifikatu, adierazi, onartu eta pixkanaka kontrolatzeko erremintak. |
| Laguntzeko eta elkarlanerako estrategiak jolasen eta errutinen testuinguruan.   |
| Norberarengan segurtasuna, norbere buruaren aukeren ezagutza eta besteekiko asertzioa garatzeko estrategiak.                            |

|   |
|---|
| Bigarren Zikloa   |
| Akatsen eta zuzenketen onarpen eraikitzailea: mugak gainditzeko eta lorpenak erdiesteko estrategiak.  |
| Kalitatezko lana balioestea: esfortzua, jarraitutasuna, antolaketa, arreta eta inizatiba izateko ohiturak eta jarrerak garatzen hasia.  |
| <b>C. Norberaren zaintzarako osasuntsuak diren eta naturarenerako mesedegarriak diren bizitza-ohiturak.</b>   |
| Oinarritzko beharrak: adierazpena, erregulazioa eta kontrola ongizate pertsonalarekin lotuta.   |
| Elikadurarekin, higieinarekin, deskantsuarekin, norberaren eta ingurunearen zaintzarekin lotutako ohitura eta praktika jasangarriak, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsuak direnak. |
| Intentsitate-maila desberdineko jarduera fisiko egituratua.   |
| Errutinak: zeregin bat burutzeko ekintzen planifikazioa eta sekuentziazioa; gizarte-portaera arauak jatorduetan, deskantsuan, higieanean eta lekualdaketetan, etab.                         |
| Egoera arriskutsuak identifikatzeko eta istripuak ekiditeko jarraibideak.   |
| <b>D. Elkarreragin sozioemozionala ingurunean. Bizitza besteekin batera.</b>  |
| Familia-aniztasuna.   |
| Familia eta eskolan hasteko prozesua.   |
| Trebetasun sozialak eta bizikidetzarako trebetasunak: sentimenduen eta emozioen adierazpena eta bizikidetzarako oinarritzko jarraibideak, genero-berdintasunaren errespetua barne.          |
| Norberaren jokaeraren erregulaziorako estrategiak. Enpatia eta errespetua.  |
| Beste pertsonekin izandako interakzioetan sortutako gatazken kudeaketa.   |
| Laguntasuna babeserako, indarkeriaren prebentziorako eta bakearen kulturaren garapenerako osagai.   |
| Adeitasun-esapideak eta gizarte-interakzio onuragarriak. Laguntzeko eta kolaboratzeko jarrera.  |
| Desgaitasun-mota desberdinek eta horiek eguneroko bizitzan dituzten inplikazioek aniztasunari ematen dioten erantzun enpatikoa.   |
| Jolas sinbolikoa. Jolasa. Pertsonen, pertsonaien eta egoeren behaketa, imitazioa eta adierazpena. Estereotipoak eta aurreiritziak.  |
| Beste gizarte-kidego talde batzuk: ezaugarriak, eginkizunak eta zerbitzuak.   |
| Ospakizunak, ohiturak eta tradizioak. Haurrak ingurunean dituen identitate-adierazle etniko eta kulturalak balioesteko erremintak.  |

## 2. EREMUA. INGURUNEA EZAGUTZEA ETA ESPLORATZEA.

Eremu honekin ingurune oso osagai fisiko eta naturalak ezagutzea, behatzea eta esploratzea bultzatu nahi da. Ingurunea haurarentzat emozio eta harridura iturri izan dadila eta horren pixkanakako ezagutzarekin, ingurumena zaintzea eta babestea errespetatu eta balioetsi dezan saiatu. Geure buruaren ezagutza eta gurekiko errespetua naturaren ezagutza eta errespetuarekin lotuta dago. Pertsonak natura ere bagaren heinean, haurra zaindu eta errespetatzen badugu, ingurumena eta natura zaindu eta errespetatzeko ereduak izango ditu.

Eremu horrek beste bien osagarri gisa du zentzua eta horrela interpretatu beharko dira eremuak, hain zuzen, proposamen didaktikoetan: ikaskuntzen ekintzak eta ikaskuntzak era orohartzailean hartuta.

Eremuko berariazko konpetentziak, beraz, pentsamenduaren eta estrategia kognitiboaren garapenera bideratzen dira, ingurune fisikoa eta naturala deskubritzeko prozesuaren bidez. Horrela, ikerketarako prestasuna indartzen da, gero eta zalantza-jarrera handiagoa sustatzen da eta konponbide dibertsifikatuak proposatzera animatzen da. Laburbilduz, haurrek ingurunearekiko duten jakin-mina sustatu nahi da, bai eta ingurunearen ezagutzarekiko jarrera aktiboa sustatu ere, eta, gainera, norbanakotik kolektiboarenganako bilakaera bultzatu nahi da: alde batetik, hezkidetzeta-ikuspegiaren bidez, norberaren interesak asetzetik taldearen interesak aintzat hartzera igaroko da; bestetik, norbanakoaren ikaskuntzatik elkarlanekora.

Eremua hiru konpetentzia espezifikoren inguruan antolatzen da. Lehenengoa, ingurunea osatzen duten elementuen arteko harreman logikoak identifikatzen eta ezartzen laguntzen duten trebetasunak garatzera bideratuta dago; bigarrena, erronkak identifikatzeko eta balizko konponbideak proposatzeko jarrera kritikoa eta sortzailea sustatzera bideratuta dago; eta hirugarrenak, mundu naturalera hurbilketa kognitiboa, afektiboa eta errespetuzkoa dakar, erabilera jasangarria, zaintza eta kontserbazioa behar direlako kontzientzia pizteko.

Horrela, ingurune fisiko eta naturala ikasteko espazio gisa eta ikaskuntza iturri gisa ulertzen da. Hori dela eta, oinarrizko jakintzak ingurunea osatzen duten elementuen sormenezko esplorazioaren eta esplorazio kritikoa arabera norberegantzen da. Prozesu hori ingurunearekin gorputzaren bidezko interakzioaren, ezagutzeko eta esperimendatzeko modu desberdinei lotutako trebetasun eta prozesuen eta beti izan behar duten errespetuan eta balioespenean oinarritutako jarreraren bitartez.

Txiki-txikitatik, haurrek inguruan dituzten objektuen eta materien portaera eta zenbait ezaugarri eta propietate aztertzen dituzte. Behin eskolan, beren ingurunea ezagutzeko eta ulertzeko ekin nahi hori bultzatuko da. Lehenik eta behin, beren ekintzen eta eskura dituzten objektuen manipulazioaren bidez, sortzen dituzten sentazioez jabetzen dira, eta beren jarduketan ondorioetako batzuk egiaztatzen hasten dira; orduan, intenzionalitatea agertzen da, eragindako efektuarekin duten lotura egiaztatzeke keinuak eta ekintzak errepikatuta. Aurrerago, lekualdatzeko gaitasun handiagoaren ondorioz jardun dezaketen espazioa zabaltzen eta dibertsifikatzen denean, esperimendazio-prozesuak aberastu egiten dira, aukera gehiago baitituzte ekintza gero eta askotarikoagoak eta konplexuagoak gauzatzeko.

Objektuei eta materialei buruzko esplorazio eta esperimendazioaren ondorioz, eta haien ezaugarri eta ezaugarri batzuen bereizketatik abiatuta, haurrek hautatutako irizpide baten arabera, taldekatu edo bildumak proposa ditzakete. Era berean, objektuen eta gaien atributu batzuen eta horien portaera fisikoaren arteko erlazioak ezartzen dituzte, eta korrelazioak egiten dituzte esku-hartze horien eta eragiten dituzten efektuen artean. Horretarako, hainbat estrategia garatu behar dira, hala nola aurrea hartzea eta aurrekustea, hipotesiak formulatzea eta espero dena betetzen den egiaztatzeke fenomenoak behatzea, eta ezaugarri edo ezaugarri iraunkorren eta aldagaien arteko diskriminazioa. Azken batean, ingurune fisikoari dagozkion oinarrizko nozio eta kontzeptuetara hurbiltzen da intuizioa, betiere errealitatearekin kontrastatuta, eta pentsamendu zientifikoaren oinarriak finkatzen hasten dira. Natura-ingurunea eta hura osatzen duten izaki eta elementuak haurren jakin-minaren eta interesaren lehentasunezko objektu izan dira beti. Beren esperientziei eta naturako elementuekiko harremanei buruzko hausnarketari esker, fenomeno natural batzuen adierazpenak eta ondorioak behatu eta ulertzeko bidean aurrera egingo dute, eta pixkanaka izaki bizidunen, haien ezaugarrietako batzuen eta haien artean eta gizakiekin ezartzen diren harremanen ezagutzara eta balorazioa hurbilduz joango dira. Orain, garrantzi berezia hartzen du natura-ingurunearen aniztasuna eta aberastasuna balioestea eta balioestea sustatzeak, pertsonak ingurune horren parte garena eta ingurumenarekiko lotura afektiboa dugula deskubrituta. Bi faktore horiek oinarrizkoak dira eskolatik ingurumena errespetatzeko eta zaintzeko eta ohitura eko-osasungarriak eta iraunkorrak hartzeko jarrerak hasteko.

Haurrek, interesak eta emozioak bultzatuta, beren ekimenez parte hartuko dute ikaskuntza-egoeretan, eta objektuekin, espazioekin eta materialekin elkarreraginean arituko dira. Manipulatuz, behatuz, arakatuz, probatuz, identifikatuz, erlazionatuz, egiaztatuz, arrazoituz... Ingurune hurbileneko elementuen ezaugarriak eta ezaugarriak ezagutuko ditu. Era berean, metodo zientifikoaren eta pentsamendu konputazionalaren eta diseinuaren berezko trebetasun errazak esperimendatu eta hedatuko ditu pixkanaka. Gainera, lengoai eta adierazpide desberdinak erabiliko ditu bere ekintzak laguntzeko, autoerregulatzeko, aurkikuntza baten aurrean bere harridura eta emozioa partekatzeko, ideiak edo galderak egiteko eta bere interpretazioak edo ondorioak kontatzeko edo irudikatzeke. Hori guztia testuinguru iradokitzaile eta erakargarri batean. Testuinguru horrek, behartu gabe, inguruan duena ulertzeko jakin-mina piztuko dio, eta sortzen dituen erronkei erantzuteko irtenbide sortzaileak eta originalak proposatzera bultzatuko du.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen-manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun

logiko-matematikoak garatzeko.

Eta honetan, hurrek inguratzen duen mundua deskubritzeko duten jakin-mina, zentzumen-manipulazioaren bidez esploratzen du, tresna ezin hobea da beren ingurune hurbileneko materialen eta objektuen ezaugarriak identifikatzeko eta haien artean erlazioak ezartzeko. Esplorazio-jolas honen helburua sortzen dituen sentazio fisikoez gozatzea da. Hala ere, hurraren garapen mailaren arabera, esploratzeko eskaria handitu egiten da: sentitzeko eta ukitzeko plazerra lortzeko asmoari pixkanaka objektuen ezaugarriak ikertzeko interesa gehitzen zaio. Mugimendu zabal eta globalari ekintza espezifikagoak eta zehatzagoak egiteko gaitasuna gehitzen zaio. Horrek guztiak gero eta informazio gehiago ematen die beren ezaugarriei buruz.

Pertsona helduak konpondu beharreko erronkak jarri behar dizkio hurrari ikas-egoeren eta esperientzia esanguratsuen bidez eta horretarako, material mota eta jarduera mota hautatu behar ditu, bizitza errealeko egoeretatik abiatuta, profesionalak eskainitako egoeretatik abiatuta. Jardueren abiapuntuak hurren interesak izan behar dira, indibidualak eta taldearenak, eta gainontzekoekin izaten dituzten interakzioek lehen mailako eginkizuna izan behar duela. Era horretan, hurrek ikasitakoaren artean loturak egiten dituzte, pixkanaka trebetasun logiko eta matematikoak garatzea ahalbidetuko diena: neurketa, lotura, sailkapena, antolamendua eta zenbaketa. Hasieran trebetasun horiek interes indibidualei lotuta egongo dira eta pixkanaka taldeko interesak ere aseko dituzten ikas-egoeren barnean.

2. Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak garatzea pixkanaka, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta planteatzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.

Pentsamendu zientifikoaren ikerketa-ekimenaren eta jakintzarekiko jakin-minaren oinarriak ezartzea Haur Hezkuntzako etaparen garapenari dagokio. Etapan zehar, hurrek irtenbide edo alternatibak aurkitu beharko dituzte hainbat gai, erronka edo egoeratarako. Eta, horretarako, hasiera batean errazak eta manipulatzailerak diren prozesuak aplikatuko ditu, pixkanaka konplexutasuna areagotuko dutenak eta abstrakzio-gaitasun handiagoa eskatuko dutenak. Aipatutako prozesuak pentsamendu konputazionalerako trebetasunen, diseinuaren eta metodo zientifikoaren gisakoak dira eta zeregin bat beste sinpleago batzuetan deskonposatuz aplikatuko dira, hipotesiak eginez eta ziurtatuz, esploratuz eta ikertuz, ezagutzak lotuz eta ideiak edo konponbide originalak planteatuta.

3. Naturaren elementuak eta fenomenoak ezagutzea, eta naturan eragina duten ohiturekiko interesa agertzea, pertsonen bizitzan ingurunea modu iraunkorrean erabiltzeak, zaintzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia jabetzeko.

Ingurune hurbila da hurrak jaiotzen direnetik erlazionatzen diren lehen testuingurua. Bertan garatzen diren elementu eta fenomeno naturalek haren arreta erakarriko dute, eta aukera ezin hobea izango da haren jakin-mina pizteko, deskubritu ahala. Ingurune fisiko eta naturalarekin erlazionatzeko jarrerak hein handi batean baldintzatuko ditu haien esperientziak eta ikaskuntzak. Horrela, hasiera-hasieratik, ingurune naturalera eta ingurune hori osatzen duten izaki bizidun eta bizigabeetara hurbiltzea bultzatu behar da, haien adinak eta gaitasunek uzten dioten arreta eta errespetu guztiarekin.

Ingurunearen aurkikuntza- eta ezagutza-prozesu hori kontserbazio-kontzientzia hasiberri bat garatzera bideratu beharko da, hasiera-hasieratik uler dadin guztion inplikazioa eta erantzukizuna ingurunearen errespetuan eta zaintza dela. Etapan zehar, garapen jasangarrirako ohiturak hartuko dituzte eguneroko errutinetan, hala nola kontsumo arduratsua edo/eta natura zaintzea. Horri esker, pixkanaka ingurumenak eskaintzen dituen aukerak eta bizitzak ahalbidetzen duen guztia baloratzen ikasiko dute.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

| Lehen zikloa  | Bigarren zikloa  |
|---|--|
| <b>1. kompetentzia espezifikoa</b>  |  |
| <p>1.1. Objektuen arteko loturak egitea oinarrizko ezaugarriak kontuan hartuta jakin-mina eta interesa adieraziz.</p> <p>1.2. Eguneroko esperientziarekin lotutako oinarrizko kuantifikatzaile esanguratsuenak erabiltzea, eta jolasaren eta besteekiko interakzioaren testuinguruan erabiltzea.</p> <p>1.3. Oinarrizko nozio espazialei buruzko ezagutzak aplikatzea espazioetan kokatzeko, bai geldi, mugimenduan, norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.</p> | <p>1.1. Objektuen artean hainbat lotura egitea ezaugarriak kontuan hartuz jakin-mina eta interesa adieraziz.</p> <p>1.2. Oinarrizko zenbatzaile esanguratsuak erabiltzea jolasaren eta besteekin dituzten testuinguruan.</p> <p>1.3. Ohiko espazioetan era egokian kokatzea, geldi daudela, zein mugimenduan, espazioari buruzko oinarrizko ezagutzak erabilia eta norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.</p> <p>1.4. Eguneroko egoerak identifikatzea eta neurketak egiteko, gorputza edo beste material eta erreminta batzuk erabiltzea.</p> <p>1.5. Haien jarduera antolatzea, denborazko segiden ordena ezarriz eta denborari buruzko oinarrizko jakintzak erabilia.</p>   |
| <b>2. kompetentzia espezifikoa</b>  |  |
| <p>2.1. Zailtasunak, erronkak eta arazoak kudeatzea interesez eta inizatibaz, ekintza sinpleagoz osatutako sekuentzietan banatuz.</p> <p>2.2. Hainbat estrategien bidez konponbide alternatiboak proposatzea, entzunez eta gainontzekoak errespetatuz.</p>  | <p>2.1. Egoerak, zailtasunak, erronkak edo arazoak kudeatzea jardueren sekuentziak planifikatuz, interesa eta inizatiba adieraziz eta maila berekoekin elkarlanean arituz.</p> <p>2.2. Pixkanaka zailtasunen edo arazoan ondoriozko frustrazioa bideratzeko estrategiak erabiltzea.</p> <p>2.3. Hainbat elementu edo materialen portaeraren inguruan hipotesiak planteatzea eta eskuztatuz eta haiengan ekinez egiaztatzea.</p> <p>2.4. Erabakiak hartzeko gero eta autonomia handiagoz hainbat estrategia erabiltzea eta planteatzen diren erronketako arazoei sormena erabilia konponbideak aurkitzea.</p> <p>2.5. Zeregin analogiko edo digitaletarako ekintzen edo argibideen sekuentziak antolatzea, pentsamendu konputazionalerako oinarrizko kompetentziak garatuz.</p> <p>2.6. Proiektuetan parte-hartzea norberaren eta besteen iritzia partekatuz eta balioetsiz eta horietatik aurrera ondorio pertsonalak adieraziz.</p> |
| <b>3. kompetentzia espezifikoa</b>  |  |
| <p>3.1. Interesa adieraztea naturarekin lotutako proposamenekiko eta tokiekiko, baita ingurune elementu naturalekiko ere. Naturako elementuak errespetatzea eta horiekin gozatzea.</p> <p>3.2. Bere inguruan ohikoak diren fenomeno atmosferikoak identifikatzea eta izendatzea eta eguneroko bizitzan dituzten ondorioak azaltzea.</p>   | <p>3.1. Natura-ingurunea errespetatzea eta zaintzeko jarrera izatea eta gizakien ekintza batzuek bertan dituzten ondorio positibo eta negatiboak identifikatzea.</p> <p>3.2. Izaki bizidunek eta bizigabeek dituzten ezaugarri komunak eta ezberdinak identifikatzea.</p> <p>3.3. Natura-ingurunearen eta gizarte-ingurunearen arteko loturak egitea naturako hainbat fenomenoren behaketatik aurrera.</p>   |

## OINARRIZKO JAKINTZAK

| Lehen Zikloa  |
|---|
| <b>A. Gorputz-elkarrizketa ingurunearekin. Objektuak, materialak eta espazioak sormenez esploratzea.</b>  |
| Ingurunearen eta horren elementuak esploratzeko jakin-mina eta interesa.  |
| Zentzumene bidez objektu eta materialak esploratzea.  |
| Objektu eta materialen ezaugarriak edo atributuak identifikatzea. Esku-hartze desberdinek haiengan dituzten ondorioak.  |
| Ordena-, korrespondentzia-, sailkapen- eta konparazio-erlazioak.  |
| Oinarrizko zenbatzaileak testuinguruan jarrita.   |
| Objektuekin eta norberaren gorputzarekin lotutako espazioari buruzko oinarrizko ezaugarriak.  |
| Denborari buruzko oinarrizko ezaugarriak: aldaketa eta iraunkortasuna; segida eta aldiberekotasuna; lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna.  |
| <b>B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena.</b>  |
| Ingurunea aztertzea jarrera hauekin: interesa, jakin-mina, irudimena, sormena eta harridura.  |
| Jakintza berriak eta eraikuntza-prozesua: ezagunaren eta berriaren arteko harremanak eta loturak, aurreko esperientzien eta berrien artekoak; pertsona helduekin, maila berekoekin, ingurunearekin, etab. ikaskuntza garatzeko egiturak eta kalitatezko interakzioak. |
| Aldagaiak kontrolatzeko eredua. Ikerkuntzarako estrategiak eta teknikak: saiakuntza-errore metodoa, behaketa, egiaztatzea, galderak egitea.   |
| <b>C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua.</b>   |
| Norberaren ekintzek ingurune fisikoan eta natura- eta kultura-ondarean dituzten ondorioak.  |
| Elementu naturalekin esperimendatzea.   |
| Ohiko fenomeno naturalak: ondorioak haien eguneroko bizitzan.   |
| Natura, izaki bizidunak eta animalien eskubideak errespetatzea.   |
| Ingurune fisikoan dagoen kultura-ondarea errespetatzea.   |

| Bigarren Zikloa  |
|--|
| <b>A. Gorputz-elkarrizketa ingurunearekin. Objektuak, materialak eta espazioak sormenez esploratzea.</b>   |
| Objektuen eta materialen ezaugarriak. Ordena-, korrespondentzia-, sailkapen- eta konparazio-erlazioak.   |
| Oinarrizko zenbatzaileak testuinguruan jarrita.  |
| Zenbakien funtzionaltasuna eguneroko bizitzan.   |
| Neurketak egin behar diren egoerak.  |
| Norberaren gorputzarekin, objektuekin eta ekintzekin lotutako espazioari buruzko oinarrizko ezaugarriak, geldirik, zein mugimenduan.   |
| Denbora eta denbora-antolaketa: eguna eta gaua, urtaroak, zikloak, egutegia...   |
| <b>B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena.</b>   |
| Ingurunea ikertzeko jarraibideak: interesa, errespetua, jakin-mina, harridura, galderak egitea eta jakiteko nahia.   |
| Estrategiak eta jakintza berrien eraikuntza: ezagunaren eta berriaren arteko harremanak eta loturak, aurreko esperientzien eta berrien artekoak; pertsona helduekin, maila berekoekin, ingurunearekin, etab. ikaskuntza garatzeko egiturak eta kalitatezko interakzioak. |

| Bigarren Zikloa   |
|---|
| Aldagaiak kontrolatzeko eredia. Ikerkuntzarako estrategiak eta teknikak: saiakuntza-errore metodoa, behaketa, esperimentazioa, hipotesiak egitea eta egiaztatzea, galderak egitea, hainbat informazio iturri kontrolatzea eta haietan informazioa bilatzea. |
| Planifikaziorako, antolaketarako eta norberaren zereginen erregulaziorako estrategiak. Akordioetara edo adostasunera iristeko inizatiba erabakiak hartzerakoan.   |
| Konponbideak proposatzeko estrategiak: sormena, elkarrizketa, irudimena eta ezagutza.   |
| Prozesuak eta emaitzak. Aurkikuntzak, egiaztatzea eta ondorioak.  |
| <b>C. Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balioespena eta errespetua.</b>   |
| Naturaren elementuak (ura, lurra, airea) Ezaugarriak eta portaera (pisua, edukiera, bolumena, nahasketak edo ontzi-aldaketak).  |
| Pertsonen ekintzek ingurune fisikoan eta natura- eta kultura-ondarean duten eragina. Klima-aldaketa.  |
| Baliabide naturalak. Iraunkortasuna, energia garbiak eta naturalak.   |
| Fenomeno naturalak: identifikazioa eta pertsonen bizitzan dituzten ondorioak.   |
| Natura-ingurunea errespetatzea eta babestea.  |
| Enpatia, animalien zaintza eta babesa. Beren eskubideak errespetatzea.  |
| Ingurune fisikoan dagoen kultura-ondarea errespetatzea.   |

### 3. EREMUA. KOMUNIKAZIOA ETA ERREALITATEAREN ADIERAZPENA.

Haurren garapen integral eta harmonikoan laguntzen dute eremu honetan jasotzen diren lengoaiak, hizkuntzek eta adierazpideek. Ondorioz, beste bi esperientzia eremuekin batera era globalean landu behar da. Hori guztia, ahalbidetzeko, testuinguru esanguratsu eta funtzionalean komunikatzeko eta irudikatzen modu anitzak erabil ditzaketen ikaskuntza-espazioetan gauzatuko diren ikaskuntza-egoerak diseinatuko dira. Haurrak, bizi eta sentitzen duen oro barneratzen du zentzumenean bidez. Errelatoak bere biziko garrantzia du sentitzen duena, bizi duena, egiten duena komunikatzeko edota adierazteko. Errelatoak norbere barne eta kanpo egoera irudikatzen, antolatzen eta erregulatzen laguntzen du. Errelatoaren eraikuntza honetan, helduaren esku-hartzea eta akonpainamendua ezinbestekoa da. Estereotipoetarako joerarik gabe egiten dela ziurtatuta. Beraien nortasuna eraikitzeke, errealitatea irudikatzeke eta besteekin harremanetan jartzeko haurrengan lengoia eta adierazpide desberdinen bidez komunikatzeko konpetentziak garatuko dira.

Eremu honen berriazko konpetentziak, haurra, beste pertsona batzuekin komunikatzean errespetua, etika, egoerarekiko egokitasuna eta sormena erabiltzeko trebetasunarekin lotzen dira. Alde batetik, ikuspegi komunikatiboa lantzen da, eta, bestetik, kultur arteko testuinguru eleaniztun batean ikuspegi interaktiboa bilatzen da. Eremuko ikaskuntzak antolatzeko berriazko konpetentziak komunikazioaren funtsezko hiru alderdi ditugu: adierazpena, ulermena eta interakzioa. Lehentasuna hitzezko hizkuntza eskuratzeko prozesuari emango zaion arren, komunikatzeko lengoia eta adierazpide desberdinen komunikazio-aukerak ahalbidetuko dira. Komunikazioak bizi garen mundua interpretatzeko eta irudikatzeke aukera ematen du. Hori dela eta, konpetentzia espezifikoen artean, eremuaren barnean dauden hizkuntzekin eta lengoaiekin lotutako adierazpen kulturaletara hurbiltzearekin harremana duen konpetentzia dago. Hori izango da lehen pausoa haurtzarotik kultura eta hizkuntza aniztasuna duen errealitatearen berri izateko eta horren balioaz jabetzeko.

Eremu honetan, komunikazio-kompetentzia garatzea espero da. Konpetentzia hori eboluzionatuz joango da. Hasiera batean, lehen mailako beharrak asetzeari lotuta dauden hizkuntza eta lengoaien kodeek, gorputz-adierazpenaren eta keinu-adierazpenaren bidezko elkarreraginean garatuko dira. Lehen elkarreragin horietatik, gero eta konplexuagoak diren mezuak modu eraginkor, pertsonal eta sortzailean sortzeko, interpretatzeko eta ulertzeko bidea egingo da.

Ahozko komunikazioa, bizipenak, sentimenduak, ideiak edo emozioak adierazteko, ikasteko eta jokabidea erregulatzeko tresna nagusia da. Horregatik, ahazko komunikazioa eskuratzeko eta garatzeke garrantzi berezia du etapa honetan. Ahazko hizkuntza pertsona helduarekin komunikazio esanguratsu eta aberatsaren bidez garatuko da. Heldua izango da eredu garria eta ondorioz, berak

erabiltzen dituen eredu inklusiboen bidez, elkarrekintza desberdinek zentzua emango diote komunikazio egoera bakoitzari. Gero eta konplexuagoak diren formetara eta erabileretara pixkanaka gerturatzeko eta garatzeko, hitzik gabeko komunikazioaren elementu batzuk ere sartuko dira.

Ezinbestekoa da ahalik eta lengoaia gehien garatzea eta haien arteko erlazioa ahalbidetuko duten ingurune multialfabetizaille aberatsak eskaintzea. Hizkuntza idatziaren kasuan, umeak bata bestearekin eta helduekin elkarri eragiteko testuingurua sortuko da, irakurketa- eta idazketa-eredu jardungo baitute eta, hala, jakin-mina sortu, interesa piztu eta hizkuntza idatziaren esanahi sozial eta kulturala esploratzeko eta deskubritzeko gogoia piztuko baitute. Interes hori areagotu egingo da haurren garapen mailarekiko eta interesekiko doituak diren liburuak eta bestelako testuak eskura uzten bazaizkie. Eskaintza hau, eskola bizitzako egunerokoan eskainiko da, haurrentzako egoera funtzional eta esanguratsuetan kokatuta. Argi izan behar dugu idatzizko kodea eskuratzea ez dela etapa honetan lortu beharreko helburua.

Eta honetan ere, literatura-testuekiko lotura emozionala eta ludikoa hasiko da. Bereziki, haur-literaturan murgilduko da gozamen-iturri gisa. Horrela, eguneroko testuinguruan, lehenengo sehaskantak, xuxurla-kantak eta ipuinak entzutean sortzen dira lotura emozionalak. Haur Hezkuntza etapa, ahozko literaturaren etapa nagusia da errimak, erretolikak, folkloreak... bere horretan landuko dira. Haur-literaturara modu naturalean hurbiltzeko, eskola espazioetan edota ekosistemetan liburutegia kokatzeko espazio goxoa eta abegikorra sortzeak, gerturatzeko eta ezagutzeko honetan, lagunduko du; esanahiak eraikitzeko, irudimena eta fantasia garatzeko, norberaren eta besteen errealitate kulturalera hurbiltzeko eta beste mundu batzuk ezagutzeko bidea da.

Era berean, arreta berezia eskaini behar zaio bai norberaren hizkuntza-errepertorioaren, bai gainontzekoenaren inguruan jarrera positiboak sortzeari, horretarako sentimena eta beste hizkuntza batzuk ezagutzeko jakin-mina piztu behar zaizkie beste hizkuntza eta adierazpide batzuk esplora ditzaten hertsatuz.

Haurrak bizi diren munduan elementu digitalek eragina dute komunikatzeko, informazioa lortzeko, ikasteko eta harremanak egiteko moduan. Hori dela eta, hezitzaile edo maisu-maistren ardura da tresna teknologiko eta digitalak erabiltzeko ohitura osasuntsuak, kritikoak eta arduratsuak har ditzaten pautak ezartzea. Era horretan, alfabetatze digitalaren prozesua hezkuntzako lehenengo etapetatik hasiko da.

Musika-lengoaia beste pertsonekin komunikatzea ahalbidetzen duen komunikazio baliabidea da. Gainera, hainbat alderdi garatzea ahalbidetzen du: entzute adi eta aktiboa; sentiberatasuna; inprobisatzea; gozatzea ahotsaren, norbanakoaren gorputzaren edo mugimenduen eta soinu bidezko jolasekin... Era berean, hainbat musika-adierazpen ezagutzen ere hasiko dira, ondorioz, kulturaren inguruko kontzientzia piztuz joango da eta garapen artistikoa sustatuko du.

Lengoaia-plastikoari dagokionez, etapa horretan hainbat trebetasun eskuratu eta garatuko dituzte pixkanaka eta aldi berean hainbat teknika eta materialekin esperimendatuak dute ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko. Gainera, arte-adierazpen anitzekin lotutako hainbat ereduekin harremanetan jarriko dira eta horrela gaitasun estetiko eta artistikoak garatzen hasiko dira.

Azkenik, gorputz-lengoaia adierazpenerako aukera berriak ezagutzeko baimentzen du. Aukera horiek komunikatzeko xedearekin, adierazteko edo helburu estetiko batekin erabil daitezke.

Eta hori, ulertzen den moduan, ikasketara jarraian datza. Jaiotzatik eta etapa horretan zehar, pixkanaka haurren bizi-esperientziak zabaldu eta dibertsifikatu egiten dira. Aldi berean, hainbat lengoaia, hizkuntza eta adierazpideak dituzten adierazteko aukerak ezagutzeko eta esploratzeko interesa eta jakin-mina pizten da. Haurra gero eta era eraginkorragoan, propioagoan eta gero eta sormen handiagoz komunikatuko da eguneroko testuinguruetan.

Eremu honetan biltzen diren lengoaia eta adierazpen formek haurren garapen integrala eta harmonikoan laguntzen dute. Hori horrela, beste bi eremuekin batera modu integratuan eta globalean esku-hartu behar da. Komunikazio eta errepresentazioa desberdinen erabilera ahalbidetuko duten ikas-egoera edota espazioak ez esterotipatuak diseinatuko dira.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta asmoak adierazteko eta ingurune eskakizunei



erantzuteko.

Ingurunearekin interakzioak izateko nahia edo desira komunikaziorako trebetasunak hobetzearen eragilea da. Horretarako ezinbestekoa da emozioarekin lotutako lehenengo interakzioen bidez gozamina sentitzea. Interakzio horiek egoera orokorretan izaten dira eta testuinguruak (keinuek, isiluneek, prosodiak...) hurrak lehen erabiltzeko gai ez zen hitzen zentzua ulertzea, adieraztea eta barneratzea errazten du. Pertsona heldua hurraren solaskide nagusia da bere lehen esaldietan eta heldua komunikazioaren esperientzia errazten du partekatutako esperientzien bidez.

Komunikazio-asmoa ahalbidetzea eta sustatzeak hainbat gaitasun hedatzen laguntzen dio hurrari, besteen mezuak interpretatzeko eta ingurunearekin elkarreragiteko lagungarriak direnak. Horrela, bere beharrak, emozioak, sentimenduak edo ideiak ongizate-giroan eta emozio- eta afektibitate-segurtasunean adierazteko gaitasuna hedatuz joango da.

Desberdintasun indibidual bakoitzaren errespetatuz, komunikazio-egoera esanguratsu eta funtzionaletan parte-hartzeak, hurrei aukera emango die pixkanaka beren komunikazio-errepertorioan lengoaiak (plastikoa, musikala, gorputzezkoa, digitala...) eta hizkuntzak (ahozkoa, ez-ahozkoa) ezagutzeko eta integratzeko. Horietako bakoitzaren adierazpen-aukerak ezagutzeko, komunikazio-asmoaren edo ingurunearen eskakizunen arabera modu egoki eta eraginkorrean erabiltzeko.

Komunikazio-interakzio horiek pixkanaka komunikazio-harremanak arautzen dituzten konbentzionalismoak sustatuko dituzte. Horrez gain, beste mintzaira eta hizkuntza batzuk ikasteko jakin-mina eta motibazioa ere piztuko dute eta pixkanaka hainbat mezuren esanahietara hurbilduko dira ezagunak diren komunikazio-testuinguruetan.

2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeko.

Ulertzeak era askotako mezuen (ahozkoak, idatziak, multimodalak...) eta norbanakoaren, gizartearen, kulturaren eta artearen adierazpenen bitartez adierazitako informazioa jasotzea eta prozesatzea dakar hainbat esparru eta formatutan. Informazio hori interes eta behar pertsonalari lotuta egoten da.

Ulermenak mezuak interpretatzea, aztertzea eta hautemandako estimuluei erantzutea dakar. Horretarako, etapa honetako hurrek, aurrerapenak, hurbilketak eta inferentziak gero eta modu pertsonalagoan eta sortzaileagoan egiteko gaitasuna garatzeko hainbat estrategia bereganatu eta aktibatuko dituzte. Horrela, beste pertsona batzuen mezuak eta komunikazio-asmoak ulertu ahal izango ditu, eta esanahi eta ikaskuntza berriak eraikitzen joango da. Akonpainamendu eta bidaidetza doituari esker, hurrak gero eta autonomia gehiago garatzen eta lortzen doan heinean, mundua ezagutzeko maila ere handituz joango da.

3. Hainbat lengoia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutzeko eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorrean, pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.

Lehen etapetan mezua sortu eta igortzeak kontaktuaren behararekin eta oinarritzko beharren asetzearrekin dauka zerikusia; gorputz eta keinu lengoia ezinbestekoa da lehenengo komunikazio-ekintza horretan. Ahozko hizkuntza, pertsona helduarekin izaten den interakzioari esker, ikasteko; portaera erregulatzeko, eta beharrak, ideiak emozioak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko baliabide nagusia bihurtzen da. Prosodiak eta hizkuntzaren hizketaz kanpoko ezaugarriek berebiziko garrantzitsua hartzen dute orain.

Etapan aurrera egin ahala, mezuak sortzeak bizi izandako edo imajinatutako errealitatearen alderdiak irudikatzea ahalbidetzen du. Haurra, hainbat lengoia erabiliz, gero eta modu pertsonalagoan, komunikazio-testuinguru eta egoera desberdinetara doituz joango da. Hurrek, adierazpen-modu desberdinak erabiliko dituzte modu aske eta sortzailean. Haur bakoitzak errealitatearen ezagutzatik eta interpretaziotik abiatuta, kasu bakoitzean behar diren sinbolizazio-sistemak zein teknikak (ahozkoak, ez-ahozkoak, plastikoak, musikalak, digitalak...) erabiliko ditu. Heldutasun eta ikaskuntza-

prozesuaren une zehatzaren arabera, lengoia eta hizkuntza horietako bakoitzaren adierazpen-  
aukerak ezagutuko dituzte, esperimentazioaren eta erabileraren bitartez.

4. Idatzizko testuekin lotutako jardueretan parte hartzea norberaren inizatibarekin, funtzionalitatea  
eta ezaugarrietako batzuk ulertzeko interesa eta jakin-mina adieraziz.

Haur Hezkuntzako etapa pixkanaka hizkuntza-idatzira hurbiltzeko ingurune abantailatsua da.  
Hizkuntza-idatzia komunikatzeko, ezagutzarako eta gozamenerako tresna gisa ulertzen da.  
Ikaskuntza prozesua beti haurraren garapenaren eta interesaren menpe egongo da. Haurra testu  
idatzietara hurbilduz eta aurreikuspenen eta inferentzien bidez horiek esploratzen hasten denean, eta  
kalitatezko irakurketa eta idazketa ereduak behatzen dituenean, horien oinarriak ezagutzeko jakin-  
mina piztuko zaio. Idatzizko-hizkuntzaren ezaugarri eta konbentzio batzuk ulertzeko prozesuan  
aurrera egiten duen heinean, bertan dagoen informazioa ezagutzeko beharra handitzen da jolasean  
eta gozamenen oinarritutako jarrerarekin.

Beti errespetatu behar dira pertsona bakoitzaren garapen-pertsonalaren eboluzioaren erritmoa eta  
ezagutu behar da ikasteko leku edo ekosisteman haurrak bere burua eguneroko proposamenetan  
eskaintzeko prozesua. Haurrak ahozko-hizkuntza eta ulermena garatuta baditu, bere garapena eta  
interesa errespetatuz, Lehen Hezkuntzan finkatu beharko den prozesu bati hasiera emateko aukera  
eskainiko zaio. Liburutegiek edo idatzitako hainbat material eskaintzen dituzten espazioek haurrek  
hizkuntza-idatziaren zergatiaren eta funtzioaren ideiak lantzeko paper garrantzitsua izaten dute.  
Gainera, haur-literaturarekin lehen harremanen gozamina bizitzeko lekuak izaten dira. Era berean,  
idazketarako hainbat euskarri eta tresna leku eskuragarrietan izanda, haurrek gogoia izaten dute  
plazerragatik mezuak sortzeko eta pentsamenduak, bizipenak edo sentimenduak era naturalean  
adierazteak sortutako emozioa sentitzeko.

5. Komunikazio-estrategiak eta kultura-ezagutza aberasteko, haurraren ingurunean dagoen  
aniztasun linguistikoa eta beste kultura-adierazpenak baloratzea.

Haurrek, jaiotzen direnetik, haien gertuko ingurunearekin dute harremana, hori da harremanetarako  
haien lehen testuingurua. Bertan gertatzen diren elementu eta naturako fenomeno anitzek haien  
arreta erakarriko dute eta aukera paregabea izango dira haien jakin-mina sustatzeko ezagutuz doazen  
heinean. Ingurune fisiko eta naturalarekiko duten jarrerak neurri handi batean baldintzatuko ditu haien  
esperientziak eta ikaskuntzak. Horrela, hasieratik natura-ingurunera eta bertako izaki bizidun eta  
bizigabeetara hurbilketa bat egin behar zaie haurrei, haien adinarekin eta gaitasunarekin posible den  
zaintza eta errespetu guztiarekin.

Eskolako eleaniztasunaren aberastasuna, eta kasu horretan familian erabiltzen ez den hizkuntza  
ofiziala eta atzerriko hizkuntzak ikastea bereziki garrantzitsua den elementua da. Izan ere, haur  
bakoitzaren familian erabiltzen ez den hainbat hizkuntzarekin harremanetan dago eta haurra horietara  
hurbiltzen da interakzioen eta ekintza ludikoen bidez. Egoera horretan errespetuan eta norberaren eta  
besteen hizkuntza-ezagutzaren eta ezagutza soziokulturalen balioespenean hezteko beharra sortzen  
da. Horrela, hizkuntza eta dialekto aniztasuna mundua gehiago eta hobeto ezagutzeko tresnak  
ematen dituen elementu aberasgarri gisa ulertzen da. Gizarte- eta kultura-adierazpenak ere  
komunikaziorako inguru abantailatsuak dira. Haurraren hizkuntza-aniztasunak kodeen arteko  
antzekotasunak eta desberdintasunak antzematea eragiten du eta kultura-erreferentzia anitzekiko  
sentimena garatzea. Haur-literaturari arreta berezia eskaintzen zaio. Espero da horretatik guztitik  
hizkuntza eta kultura-adierazpen desberdinen artean ñabarduraz betetako elkarrizketa kritikoa sortzea  
eta ondorioz, ezagutza inplizitu sorta bat sortzea. Prozesu horretan hitzak kultura-ezagutza  
aberasteko eta sentimena eta sormena garatzeko loturak izango dira eta haurrek horietara iristeko  
bidea zabalduko zaie.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

| Lehen zikloa                       | Bigarren zikloa |
|------------------------------------|-----------------|
| <b>1. konpetentzia espezifikoa</b> |                 |

| Lehen zikloa  | Bigarren zikloa  |
|---|--|
| <p>1.1. Beste pertsonekin lotura afektiboak sortzea eta indartzea, interesez interakzioetan eta eguneroko komunikazioa-testuinguruetan parte hartuta eta hainbat komunikazioa-sistema erabilia.</p> <p>1.2. Komunikazio-egoeretan espontaneo-tasunez parte-hartzea, postura, keinuak eta mugimenduak hizketakideetara moldatuz.</p> <p>1.3. Beharrak, sentimenduak eta bizipenak adieraztea komunikazio-estrategiak erabilia eta lengoia eta hizkuntza desberdinek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuta, hori guzti hori jakin-minez eta gozatuz.</p> <p>1.4. Gizarte-interakzioetan inizatiba izatea, komunikazio egoerez gozatuz errespetuzko jarrerarekin.</p> <p>1.5. Lengoia eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzea hizkuntza-profil aniztasunarekiko interesa eta jakin-mina adieraziz.</p> | <p>1.1. Era aktiboan, espontaneoan eta errespetuzkoan bakoitzaren ezberdintasunekin gero eta zailagoak izango diren hainbat komunikazio-egoeretan parte hartzea. Horretarako lengoia eta hizkuntza ezberdinen adierazteko aukerak ikertzea eta komunikazio-errepertorioa proposamenetara, hizketakideetara eta testuingurura egokitzea.</p> <p>1.2. Lengoia eta Hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzea, interesa, jakin-mina eta hizkuntza-profil aniztasunarekiko errespetua erakutsiz.</p> <p>1.3. Hainbat bitarteko eta tresna digitalen erabilerara gerturatuz, modu birtualean jardutea.</p>   |
| <b>2. konpetentzia espezifiko</b>   |  |
| <p>2.1. Inguruneko estimulu eta mezuak interpretatzea eta era egokian erantzutea.</p> <p>2.2. Sentsazioak, sentimenduak eta emozioak adieraztea hainbat arte- eta kultura-adierazpenen aurrean.</p>   | <p>2.1. Arte-adierazpenen bidez edo formatu digitalean igorritako mezuak interpretatzea igorlearen asmoa zein den identifikatuz eta jakin-minezko eta ardurazko jarrerarekin.</p>  |
| <b>3. konpetentzia espezifiko</b>   |  |
| <p>3.1. Ahozko hizkuntza beharrak, sentimenduak, desioak, emozioak, bizipenak adierazteko erabiltzea; ekintzak erregulatzeko eta hainbat egoera eta testuingurutan interakzioak izateko.</p> <p>3.2. Hainbat lengoia hizkuntzaren adierazpenerako aukerak esploratzea, hizkuntza horietako berezko baliabideak eta materialak erabiliz.</p> <p>3.3. Mezuak sortzea komunikazio-errepertorioa segurtasunez eta konfiantzaz zabalduz eta aberastuz.</p>   | <p>3.1. Ahozko-hizkuntza era praktikoan erabiltzea hizkuntza-errepertorioa zabalduz eta pixkanaka solas eraginkor bat eraikitzeko, antolatutako eta testuinguru formal eta informaletan koherentzia duena.</p> <p>3.2. Ahozko hizkuntza erregulaziorako tresna gisa segurtasunez eta konfiantzaz erabiltzea beste pertsonekin izaten dituzten interakzioetan.</p> <p>3.3. Ahozko kontaktaren bidez ideiak espontaneotasunez ekartzea gogora eta adieraztea.</p> <p>3.4. Sorkuntza plastikoak egitea hainbat material eta teknika erabiliz eta behar denean talde-lanean era aktiboan parte-hartzea.</p> <p>3.5. Dramatizazio- eta musika-proposamenak interpretatzea hainbat tresna, baliabide eta teknika erabiliz eta esploratuz.</p> <p>3.6. Norberaren mugimendua era harmoniatsuan besteenera eta gorputz-adierazpen libre gisa, espaziora egokitzea interesa eta inizatiba adieraziz.</p> <p>3.7. Intuiziozkoak eta ikusmenezkoak diren hainbat erreminta edo aplikazio-digital erabiltzea sormenez beren burua adierazteko.</p> |
| <b>4. konpetentzia espezifiko</b>   |  |
| <p>4.1. idatzizko-hizkuntzarako hurbilketa-jarduera ludikoetan era aktiboan parte hartzea.</p>  | <p>4.1. Kode-idatzien bidez komunikatzeko interesa adieraztea, konbentzionalak izan ala ez, sormenezko funtzioa baloratuz.</p>   |

| Lehen zikloa   | Bigarren zikloa  |
|--|--|
| 4.2. Idazketa zehaztugabe, espontaneo eta ez-konbentzionaletara jotzea, eta komunikazio-asmoko bere produkzioei gehitzea.  | 4.2. Testuaren eta paratestuaren ezaugarri batzuk identifikatzea gizarte-erabilera duten eta aurreiritzi eta estereotipo sexistarik ez duten erabilera sozialeko liburuetan lagundutako ikerketaren bidez.<br>4.3. Liburutegira jotzea gozamina lortzeko erabilerarako arauak errespetatuz.  |
| <b>5. kompetentzia espezifiko</b>  |  |
| 5.1. Taldearen hizkuntza- eta kultura-errealitatean naturaltasunez harremanak izatea.<br><br>5.2. Haur-literaturarekin, musika-lanekin, ikus-entzunezko lanekin, dantzeekin edo dramatizazioekin lotutako banakako eta taldeko jardueretik interesa eta gozamina adieraztea, jarrera parte-hartzailearekin aurrera eginez. | 5.1. Bere inguruneko hizkuntza- eta kultura-aniztasunean normaltasunez harremanak izatea, beste hizkuntza, etnia eta kultura batzuekiko interesa adieraziz.<br>5.2. Errutinekin eta eguneroko egoerekin lotutako komunikazio-interakzioetan atzerriko hizkuntzarekin parte hartzea.<br><br>5.3. Haur-literaturara hurbiltzeko jardueretan parte hartzea, bai banakakoetan, bai elkarrizketa testuinguruetan eta testuinguru parte-hartzaileenetan, literatura-hizkuntzaren edertasuna aurkitu, aztertu eta aintzat hartuz..<br>5.4. Emozioak, ideiak eta pentsamenduak arte- eta kultura-adierazpenen bidez adieraztea, hezkuntza prozesuaz gozatuz.<br>5.5. Arte-adierazpenen aurrean gustuak, lehentasunak eta iritziak adieraztea, horien gozamenak sorrarazten dizkien emozioak azalduz. |

## OINARRIZKO JAKINTZAK

| Lehen zikloa   |
|--|
| <b>A. Asmoa eta komunikazio-interakzioen elementuak.</b>   |
| Komunikatzeko nahia. Emozioa eta hurbiltasuna komunikazio-harremanaren oinarri gisa.   |
| Aurpegiaren eta gorputzaren bidezko adierazpena: intentziosko keinuak, beharra, aldartea eta horiekin lotutako sentsazioak.                                    |
| Kontaktuaren eta ikusmenaren <b>bidezko</b> trukea.  |
| Tonuaren eta emozioaren eta posturaren bidezko lehenengo interakzioak. Aurpegi eta keinu bidezko adierazpenak. Gorputz-elkarrizketarekin.                      |
| Haur-kantak, urruma-kantuak, magaleko jolasak.   |
| Komunikazio-jarrera adierazgarriak: elkarren arteko arreta, begirada erreferentziala eta helduaren emozio-adierazpenen ulermena eta horien aurreko erreakzioa. |
| Partekatze objektuak bitartekari gisa lehenengo interakzioen testuinguruetan.  |
| Trukeak errazten dituzten estrategiak: hizketakideari begietara begiratzea, entzute adia eta hitz egiteko itzarotea.   |
| Txanda elkarrizketan eta txandakatzea errespetua eta berdintasuna sustatzen dituzten komunikazio-egoeretan.  |
| <b>B. Hizkuntzak eta beren hiztunak.</b>   |
| Norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa.   |
| Taldeko eta inguruneko hizkuntza-errealitatea. Haien behar edo interesei erantzuten dieten hitzak eta esamoldeak.  |

|  |
|--|
| Lehen zikloa   |
| <b>C. Ahozko hitzeko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa.</b>  |
| Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: soinuekin izandako lehenengo elkarrizketak, bokalizazioak eta interakzio-jolasak.  |
| Beharren, bizipenen eta emozioen adierazpena.  |
| Ahozko hizkuntza norberaren jarrera erregulatzeko.   |
| Hizkuntza-errepertorioa: komunikazio-egoerak, taldeko elkarrizketak, lexikoa eta solasa.   |
| Soinu-adierazpena eta hitzen artikulazioa. Imitaziozko, hizkuntzaren bidezko eta entzumenaren-prestaketarako jolasak.  |
| Mundua eta mezuak ulertzea entzute aktiboaren bidez.   |
| Hiztegia. Errealitatea izendatzea.   |
| <b>D. Idatzizko hizkuntzara hurbiltzea.</b>  |
| Idatzizko formak eta inguruneke beste sinbolo batzuk.  |
| Idatzizko hizkuntzaren erabileretara hurbiltzea.   |
| Irakurketa-ereduen eta erreferentzia-ereduen bidezko irakurketa.   |
| <b>E. Literatura ikasketara hurbiltzea.</b>  |
| Aurreiritzirik gabeko haur-literaturako ahozko eta idatzizko testuak, XXI. mendeko erronkei erantzuten dietenak eta bakearen kulturaren, haurren eskubideen, generoen arteko berdintasunaren eta aniztasun etniko eta kulturalen inguruko balioak garatzen dituztenak. |
| Irakurketarako egoerak. Lotura afektiboak eta jolasaren bidezko loturak erreferentziazko irakurketa-ereduen bidez.   |
| <b>E. Hizkuntza eta musika-lengoaia.</b>   |
| Kantak eta beste musika-adierazpen batzuk ezagutzea, baloratzea eta errepikatzea. Adierazten dituzten sentimenduak eta emozioak.   |
| Ahotsaren, gorputzaren, objektuen eta musika-tresnen soinua sortzeko eta adierazpenerako aukerak.  |
| Ingurunea ezagutu eta horretaz gozatzeko entzumena erabiltzea.   |
| Soinuak, doinua eta erritmoa.  |
| <b>F. Hizkuntza eta adierazpen plastikoa eta bisuala.</b>  |
| Materialak, koloreak, testurak, teknikak eta plastikarako prozedurak.  |
| Adierazpen plastikoak eta bisualak. Beste arte-adierazpen batzuk.  |
| <b>G. Hizkuntza eta gorputz-lengoaia.</b>  |
| Keinuaren eta mugimenduaren bidezko adierazpen askea.  |
| Espazioan zehar lekualdatzea.  |
| Imitazio-jolasak txotxongiloen, panpinen edo irudikapen espontaneoko beste objektu batzuen bidez.  |

|  |
|--|
| Bigarren zikloa  |
| <b>A. Komunikazio-asmoa eta komunikazio-interakzioa.</b>   |
| Komunikazio-errepertorioa eta hitzik gabeko komunikazioko elementuak.  |
| Pertsona-arteko komunikazioa: empatia eta asertzioa.   |
| Hizkuntza-harremanerako gizarteko arauak errespetua eta berdintasuna sustatzen duten komunikazio-egoeretan: arreta, entzute aktiboa, hitz egiteko aldiak eta txandakatzea. |
| <b>B. Hizkuntzak eta horien hiztunak.</b>  |
| Norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa.   |

|  |
|--|
| Bigarren zikloa  |
| Inguruneko hizkuntza-errealitatea. Haurren behar edo interesei erantzuten dieten formulak eta esamoldeak.  |
| Atzerriko hizkuntzara hurbiltzea. Oinarrizko komunikazio praktikorako elementuak.  |
| <b>C. Ahozko hitzezko komunikazioa. Ulermena - adierazpena - elkarrizketa.</b>   |
| Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: elkarrizketak, gizarte-interakzioko jolasak eta bizipenak adierazteko jolasak.   |
| Ahozko testu formalak eta informalak.  |
| Mezuen komunikazio-interakzioa.  |
| Ekintza segidak berbaz adieraztean planifikatutako ekintza batean.   |
| Entzunezko bereizketa eta kontzientzia fonologikoa.  |
| <b>D. Idatzizko hizkuntzara hurbiltzea.</b>  |
| Irakurtzeak eta idaztearen erabilerak gizartean. Komunikazio-egoeren funtzioak eta esangura.   |
| Hainbat euskarritan idatzitako testu idatziak.   |
| Komunikazio-asmoa eta testuaren eta paratestuaren oinarrizko ezaugarrietara hurbiltzea. Interpretaziorako eta ulermenerako lehenengo hipotesiak.   |
| Idazketa-sistemaren ezaugarriak: hipotesi kuantitatiboak eta kualitatiboak.  |
| Kode idatzira hurbiltzea, zehaztu gabeko idazketetatik aurrera eginez eta eboluzio-prozesua adieraziz.   |
| Adierazpen grafikorako beste kode batzuk: irudiak, sinboloak, zenbakiak...   |
| Informazioa bilatzeko, birlantzeko eta adierazteko estrategietara hurbiltzea.  |
| Banakako irakurketarako egoerak edo irakurketa-ereduen bidez.  |
| <b>E. Literatura ikasketara hurbiltzea.</b>  |
| Aurreiritzirik gabeko haur-literaturako ahozko eta idatzizko testuak, XXI. mendeko erronkei erantzuten dietenak eta bakearen kulturaren, haurren eskubideen, generoen arteko berdintasunaren eta aniztasun etniko eta kulturalen inguruko balioak garatzen dituztenak. |
| Lotura afektiboa eta jolasaren bidezko loturak literatura-testuekin.   |
| Aurreiritzi eta estereotipo sexistarik gabeko literatura-testuen inguruko elkarrizketak.   |
| <b>F. Hizkuntza eta musika-lengoaia.</b>   |
| Ahotsaren, gorputzaren, haurren inguruneko ohiko objektuen soinua sortzeko eta adierazpenerako aukerak.  |
| Musika-proposamenak hainbat formatutan.  |
| Soinua, isiltasuna eta horien ezaugarriak. Musikaren kodea.  |
| Adierazpen-asmoa musika sorkuntzetan.  |
| Gozatzeko musika entzutea.   |
| <b>G. Hizkuntza eta adierazpen plastikoa eta bisuala.</b>  |
| Plastikarako egindako materialak espezifikokoak eta ez-espezifikokoak, elementuak, teknikak eta plastikarako prozedurak.   |
| Adierazpen-asmoa sorkuntza plastiko eta piktorikoetan.   |
| Adierazpen plastiko anitzak. Beste adierazpen artistiko batzuk.  |
| <b>H. Hizkuntza eta gorputz-lengoaia.</b>  |
| Norberaren gorputzaren adierazteko eta komunikatzeko aukerak aurreiritzi eta estereotipo sexistarik gabeko banakako eta taldeko jardueretan.   |
| Gorputz- eta drama-adierazpeneko jolasak   |
| <b>I. Teknologia digitalak.</b>  |

2023ko ekainaren 9a, ostirala

|   |
|---|
| Bigarren zikloa   |
| Aplikazioak eta erreminta digitalak informazioa bilatzeko eta prozesatzeko, sortzeko, harremanetarako eta kooperazio digital barne-hartzaile eta berdinzalea eraikitzeko. |
| Teknologia digitalen erabilera osasuntsu eta arduratsua.  |
| Irakurmena eta irudien eta baliabide digitalen bidez jasotako informazioaren interpretazioa.  |
| Haurren inguruko teknologia-elementuen funtzio hezigarria.  |

## MAIATZAREN 30EKO 75/2023 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

## IKAS-EGOERAK

Dekretu honen I. eranskinean deskribatutako funtsezko konpetentziak errazago eskuratuko dira eraginkortasunez, baldin eta haurrak beren ikaskuntzaren eragile gisa aitortzen dituen metodologia garatzen bada. Horretarako, ikas-egoera estimulatuzaileak, adierazgarriak eta integratuzaileak diseinatzea proposatzen da. Egoera horiek testuinguruan ondo kokatuta egongo dira eta haurraren garapen integralerako (dimentsio guztietan) prozesua errespetatuko dute; izatez, haurraren potentzialtasunak, interesak eta beharrak kontuan hartuko dira, eta etapako une bakoitzeko errealitatea ulertzeko moduak aintzat hartuko dira.

Ikas-egoerak gauzatu ahal izateko, berebiziko garrantzia du maisu-maistrek aldeztu aurretik programatu, hausnartu eta erabaki duten esku-hartze bateratua izatea. Hala nola, ikas-egoera horiek ahalbidetzen dituzten espazio, material eta esku-hartze bateratua eskaintzea.

Eskolaren egunerokotasunean eta bat-bateko jolasean gertatzen diren hezkuntza-ekintzak etapan zehar osatu eta aberastu dira, hurbileko errealitatean oinarritutako ikas-egoera eta -proposamen globalizatuarekin. Proposamen horien xedea izango da haurraren ikasteko interesa piztea, galderak egiteko ohitura suspertzea, aurkitzen dituen eta errealitatean jardutera edo esku hartzera bultzatzen duten egoerei sormenezko erantzunak bilatu eta aurkitzeko trebetasuna garatzea eta, era berean, harremanetarako, komunikatzeko eta ikasteko duen gaitasunean eragitea.

Haur guztiek duten ezagutzeko, jakiteko eta ikasteko interesa abiapuntu duen ikaskuntza irekiko prozesu batean, azken emaitzari baino gehiago prozesuaren garrantziari erreparatu behar zaio; erronketatik, galdera argi eta zehatzetatik abiatzea, eta eskolako egunerokotasunetik sortzen diren erantzun eta interesak entzutea. Haurrari bide horretan laguntzen dion hezkuntza-taldeak behar denean entzun, behatu, denbora eman, dokumentatu eta esku hartzen du, aurreratu gabe, soluziorik eman gabe edo prozesuetan sartu gabe.

Lehenengo hezkuntza-etapa honetan, egunero sortzen dira eskolan eta eguneroko bizitzako askotariko unetan ikaskuntza-testuinguru eta -egoera adierazgarriak. Une horietan, haurrek pertsonekin eta objektuekin harremanetan jarduten dute: iristeak eta irteerak, jolasa, jarduera eta atsedena, maitasuna eta harremanak, norberaren zaintza, osasuna, elikadura... Hezkuntza-taldeak une horiek antolatzeko eta planifikatzeko gogoeta egin behar du, ikasle bakoitzaren berezitasunekin bat etor daitezen eta segurtasuna, enpatia eta errespetua oinarri dituen ikaskuntza erraztuko duten ongizate-testuinguru bihurtzeko.

Ikaskuntza-testuinguru globalizatuak zentzua ematen diete edozein ardatzetako gaitasunei, bizipenak baitira eta haurrak garatzen, komunikatzen eta erlazionatzen diren eguneroko testuinguruan dituzten esperientziak barnean hartzen baitituzte.

Haurra munduari lotzen zaio bere baitatik, familiarekin dituen harremanetatik, beste haurrekin dituen harremanetatik, laguntzen dien helduen bidetik. Ildo horretan, tutoreak eginkizun erabakigarria du, bere garapen pertsonal, afektibo, sozial eta komunikatiboan laguntzen baitio. Azken alderdi horretan, esate baterako, tutoreak erraztuko du haurra, familia-hizkuntzatik abiatuta, euskararekin hastea eta euskara bere egitea.

Ikas-egoerak bultzatuko badira, ezinbestekoa izango da ingurunea dinamikoa, baliotsua eta malgua izatea; hau da, haurrari bere nortasuna eraikitzen lagunduko dioten testuinguruak eskaintzea, haurrak miatzea, esperientziatzea, ondorioztatzea, ulertzea eta, azken batean, esperientzia aberatsak bizitzea. Egoera horietan sozializazioa eta ingurunearekiko interakzio indibiduala eta kolektiboa erraztuko dira. Gainera, ikas-egoerek autorregulazioa erraztuko dute, eta bere erritmoan garatzea ahalbidetuko dioten erabakiak hartu ahal izango ditu haurrak. Ikas-egoeraren ingurunea adinaren eta garapen-mailaren arabera antolatuko da, norberaren inklusioa, aniztasuna eta ibilbidea ahalbidetzeko aldera. Gainera, antolaketa, espazioak eta materialak zainduko dira.

Ikas-egoerak nolabaiteko konplexutasuna duen erronka edo problema planteatu behar dute, haurraren adinaren eta garapenaren arabera, eta erronka edo problema hori sormenez ebazteak etapa antolatzen den hiru arloetako ikaskuntzak modu integratuan mobilizatzea eskatuko du, zenbait zeregin eta jardueraren bidez. Era berean, lortu nahi diren helburuen planteamendu argi eta zehatzetik abiatu behar dute, eta helburu horiek lortzeko oinarritzko jakintza multzoa integratzea ekarriko du.



Espazioak eta erronkak dituzten ekosistemak bultzatu nahi dira, garapen sentsoriala, pertsonen zaintza, inklusibitatea, jasangarritasuna eta bizikidetzak sustatuko dituztenak. Norberaren erabaki- eta aukeraketa-ibilbidearen ondoriozko autonomia eta erantzukizuna ahalbidetuko dira. Eta, azkenik, sormenaren, kritikotasunaren eta ikaskuntzaren printzipioak garatuko dira.

Egoera horiek lagungarriak izango dira haurrak eskuratutako ikaskuntzak bere eguneroko errealitateko problema baten ebazpenean erabil ditzan, betiere haurraren heldutasun-bilakaeraren arabera. Egoera horien diseinuan, beraz, haurren baldintza pertsonalak, sozialak edo kulturalak hartu behar dira kontuan, bazterketa sor dezaketen elementuak detektatu daitezzen eta elementu horiei erantzuna eman dakien. Era berean, interes komunarekin, jasangarritasunarekin, desberdintasunarekiko errespetuarekin edo elkarbizitzarekin zerikusia duten alderdiei ekin beharko zaie, eta sor daitezkeen gatazka-egoerak elkarriketaren eta adostasunaren bidetik kudeatzen hasi beharko da.

Bat-bateko jolasa da haurraren jarduera nagusia; jarduera naturala da, eskubide unibertsala, eta ikasteko testuinguru ideala. Jolasaren bidez, haurra modu natural eta atseginean garatzen da, erronkak aurkitu, esperimintatu, ikasi eta sormenez ebazten ditu, egoera berriak erabaki eta probatzeko askatasunez. Haurrak plazer hutsagatik jolasten dira, baita bizi-premiagatik ere. Jolasten dira beren nahietara hurbilduko diren munduak sortzeko, bizitako egoerak birsortzeko, errealitatea irudimenetik eta fantasiatik interpretatzeko, dibertitzeko eta barre egiteko, elkartzeko, beren burua egituratzeko eta beren espazio pertsonala eta partekatua eraikitzeko.